

**Jakin**<sup>•eus</sup>**201**  
herria kultura hizkuntza martxoa-apirila  
2014



JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

#### LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

#### OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

#### ZUZENDARIA

Lorea Agirre

#### ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

#### KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,  
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,  
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,  
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

#### IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

[jakin@jakingunea.com](mailto:jakin@jakingunea.com)

[www.jakingunea.com](http://www.jakingunea.com)



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



1978.10.02

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

## SUMMARY

### **5**

## ZENBAKI HONETAN

### **7**

## ESKUTIK ESKURA

**9** Iraganetik etorkizunera  
Joan Mari Torrealдай (talde historikoaren izenean)

**17** Jakinen lezioa  
Lorea Agirre (talde berriaren izenean)

## GAI NAGUSIA Katalunia bidean

**25** Iraultza demokratiko bat Europaren bihotzean  
Vicent Partal

Kataluniako prozesu subiranistak azken urteotan izan duen bilakaera eta gorakadaren gako nagusiak aurkezten dira. Izan ere, Auzitegi Konstituzionalak 2010ean Autonomia Estatutu berriaren aurkako epaia atera zuenean, Kataluniak, gizarte zibilaren gidaritzapean eta alderdi eta erakunde politiko nagusien eskutik, aldebakartasunaren bideari ekitea erabaki zuen duintasunaren izenean.

**39** Funtsezko agiriak independentziarako bidean

- 43** *Iritzi bilketa*: Katalunia euskaldunen begietatik  
Itziar Aduriz • Martin Aranburu • Aitor Arruti  
Aritz Galarraga • Gorka Knörr • Elisabet Zunzunegi  
Kataluniako prozesu subiranistak Euskal Herritik begiratuta  
interes berezia duenez, Kataluniako politika, ekonomia, kul-  
tura, komunikazio eta hezkuntza esparruekin lotura zuzena  
duten sei euskaldunengana jo du aldizkariak iritzi eske, 'bide  
katalanaren' gako nagusiei buruzko iritzia eman diezaguten.

## EGUNEN GURPILEAN

- 93** Kultura  
Nagore Amondarain
- 101** Ekonomia  
Joseba Barandiaran
- 107** Soziolinguistika  
Dabid Anaut
- 114** Telepolis  
Gorka Julio

## THE CATALAN WAY

### A democratic revolution at the heart of Europe

Vicent Partal, editor of the online daily *VilaWeb*, presents the main keys to the development and rise of the pro-sovereignty process in Catalonia: when the Constitutional Court passed the ruling against the new Catalan Statute of Autonomy in 2010, the Catalan people, led by civil society alongside the main political parties and institutions, decided to defend their dignity and embark on a unilateral path towards full independence. [Vicent Partal](#)

### Opinions regarding the Catalan pro-sovereignty process

The journal has approached various Basque citizens who are familiar with the current political, cultural, economic and media- and education-related situation in Catalonia in order to gather together their opinions regarding the Catalan pro-sovereignty process. Specifically, the questions asked revolve around the following six points: the hegemony of pro-sovereignty discourse, the leadership of civil society, the response by different sectors of Catalan society, the clash between Catalonia and the Spanish State, design of the future independent state, and the lessons and mutual relations existing between Catalonia and the Basque Country. [Various authors](#)

## NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, economic, sociolinguistic and communication matters. This section draws on various specialists: Nagore Amondarain, Joseba Barandiaran, Dabid Anaut and Gorka Julio. [Various authors](#)



**E**skuetan duzun hau bigarren aldiko 201. zenbakia da eta 2014. urteko bigarrena.

Zenbaki berezia da benetan honako hau: 60ko hamarkadatik hona aldizkaria zuzendu duen Jakin Talde historikoak lekukoa utzi dio zuzendaritza talde berri bati. Aldaketa bai, baina, batez ere, jarraipena: Jakinen egitasmoaren betidaniko oinarri, xede eta irizpideei helduko die hamalau lagunek osatutako Kontseilu Editorial berriak. *Gure iritziz* saileko bi editorialetan argi azaltzen denez, 'iraganetik etorkizunera' daraman urratsa egitera goaz, beti ere 'Jakinen lezioa' gogoan.

Zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean, Kataluniako prozesu subiranista hartu dugu hizpide. Izan ere, prozesu independentistak gero eta indar handiagoa bildu du azken urteotan gizarte katalanean, eta 2014ko azaroaren 9ko galdeketera begira dago. Prozesu politiko horrek sustrai sakonak ditu Kataluniako klase politikoan ez ezik gizarte zibilean; areago, prozesuaren gidaritza bera hein handi batean gizarte zibilaren eskuetan dagoela esan genezake. Trantsizio subiranista horren gako nagusiak argitzen laguntzera datorren zenbaki honetan, lehenik sarrera orokor eta gainbegiratzaila eskaini diogu gaiari, eta, ondoren, Kataluniako gizartea bertatik bertara ezagutzen duten hainbat euskaldunen iritzia bildu dugu, gaiari buruzko ikuspuntu ezberdinak jasotze aldera.

Hasierako artikuluan, beraz, Vicent Partalek Kataluniako prozesu subiranistak azken urteotan izan duen bilakaera eta gorakadaren gako nagusiak aurkezten ditu, sarrera orokor gisako artikuluan baten bitartez.

Ondoren, Kataluniako prozesu subiranista hobeto ulertzen lagundu dezaketen hainbat agiri esanguratsu aipatzen dira. Jakinen webguneko *Gogoeta* atalean aurki daitezke pdf formatuan.

Azkenik, Euskal Herriarentzako ere Kataluniako prozesu politikoak interes berezia duela aintzat hartuta, Kataluniako politika, ekonomia, kultura, komunikazio eta hezkuntza esparruekin lotura zuzena duten sei euskaldunengana jo dugu, 'bide katalanaren' gako nagusiei buruzko iritzia eman diezaguten: diskurtso subira-

nistaren hegemonia, gizarte zibilaren gidaritzza, sektore ezberdinen erantzuna, Kataluniaren eta Espainiako Estatuaren arteko talka, estatutu independentearen diseinua, Katalunia Euskal Herritik eta Euskal Herria Kataluniatik...

*Egunen gurpilean* sailean sinadura berri bat dugu: Nagore Amondarainek heldu dio Kultura atalari. Ekonomia, soziolinguistika eta komunikazioaren inguruko atalak, aurreko zenbakian bezala, Joseba Barandiaran, Dabid Anaut eta Gorka Juliok jorratuko dituzte, hurrenez hurren.



# Iraganetik etorkizunera

Joan Mari Torrealdai  
Talde historikoaren izenean

## Jakinen ibilbidea

Gure aldizkari honek laster beteko ditu hirurogei urte, 1956an Arantzazuko ikasle gazteek abiarazi zutenetik. Garai hartan fraideen ikastetxeetan, ikasle gazteak alfabetatu eta idazten trebatzeko barne-aldizkariak sortu ohi ziren, baita euskaraz ere. Horrela, bada, Etxe barruan eskuz esku joan ohi ziren denen idazkiak, kanpora irten gabe. Erriberriko frantziskotarren artean sortutako *Gure Izarra* aipatu izan da adibidetzat egindako ekarpen iraunkorragatik (1950-1975).

Jakin haragoko asmoarekin etorri zen: kanpo-aldizkaria izateko, alegia, Euskal Herriko beste seminarioei zabalduz ateak eta haietako idazle gazteen partaidetza bideratuz. Ondorengo urteetan (1967...) hasi zuen nabariago sekularitze-prozesua, eta seminarioetatik jendartera eta hirira egin zuen jauzi, Elizako gai filosofiko-teologikoetatik gai sekularretara zabalduz eta idazle laikoei orriak irekiz.

Aldi berean, garai hartan nagusi zen euskara-eredu estua baztertuz, kultur hizkera moderno irekia erabili eta lantzeko hautua egin zuen aldizkariak ('Euskaltzaindiari', 1959), eta, euskalkiak gaindituz, euskara batua-aren bidea aukeratu zuen zuzendaritzak. Jakin izan zen aldizkarietan aurrena, 1964an, euskal idazleek euskara baturako Baionan harturiko erabakiak berehala bere egiten eta bertako idazleei betearzten.

1967an aldizkariaren zuzendaritzaren atea zabandu ziren, Arantzazuko ikasleen eskuetatik kanpoko talde berriaren eskuetara zabalduz: Karlos Santamaria, Rikardo Arregi eta beste, Joan Mari Torreal dai zuzendariarekin batera. Horra Jakinen lehen historia laburra, atea zabalduz-zabalduz joan dena, 1969an Francoren gobernuak itxi zizkion arte.

Ezarritako isilunearen hesia apurtze aldera, gizarte irekian ipini zuten jakindarrek beren jokalekua berehala 1970etik aurrera, Jakin Taldea bera zabandu, sendotu eta trinkotuz, batetik; eta euskal kulturgintzako talde eta mugimenduekin lankidetzatza eratuz eta hedatuz, bestetik. Euskalgintza eta euskal kulturgintza osoa babestu eta indartzeko, sail eta talde ezberdinen arteko elkartasuna eta auzolana dela bidea uste izan du Jakin Taldeak. Barruko erredakzio- eta liburuen edizio-lana indartzeko, kanpoko lankidetzatza bilatzea eta taldearen proiektuetan lantalde berriak eratu eta bultzatzea izan da gure jokatubidea: horren adibidea izan zen UZEI proiektua, 1977an Jakin Taldeak bideratua.

Euskalgintza eta euskal kulturgintzako beste sailtako ekimen sozialetan, proiektu eta mugimendutan partaide eta bidelagun izatea gogoko izan du Jakinek, taldeak nahiz taldeko bakoitzak, euskararen eta euskal kulturaren gure garaiko egoeran taldeen arteko elkartasuna eta sailen arteko elkarlana behar-beharrezkoak direla sinetsita. Oroitzapen onez gogoratzen dugu garai bateko eta besteko taldearen edo taldeko bakoitzaren partaidetza: Durangoko azokaren hasiera nekezetan, Euskal Idazleen Elkartearen lehen urteetako lanetan, *Anaitasuna* aldizkariaren zenbait urtetako erredakzioan eta gero zuzendaritzan, alfabetatze-euskalduntze mugimenduaren hasierako ahaleginetan, unibertsitate sakabanatuetako euskal talde eta mintegien eragintzan, UEUren bideratzean eta berehalako antolakuntzan, EKBren eraikitze eta ibilbidean, Euskararen Unibertsoa eta Euskararen gizarte

Kontseilua bultzatzen, EUSENOR proiektua diseinatzen eta antolatzen, *Euskaldunon Egunkaria*-ren proiektua laguntzen, Elkar Fundazioaren lanetan. Horrelakoetan, tarte, laguntzaile edo bultzatzaile izateaz gain, batzuetan koordinazio-, idazkaritza-, zuzendaritza edo lehendakari-tza-ardura hartzea egokitu izan zaigu, gainera. Oroitzapen onez gogoratzen ditugu bidaide izandako lagunak, eta esker onez beraiengandik harturiko konfiantza.

Ekimen sozialekin bezala, erakunde publikoekiko lan-kidetzari ere gogo onez ireki dio atea Jakin Taldeak euskalgintza eta euskal kulturgintzako proiektuetan; horren adibide dira Jaurlaritzarekin eta garai bateko Nafarroako Gobernuarekin euskarari buruzko Erakusketak eta argitalpenak Joseba Intxaustiren eskutik, *Bidegileak* liburuxka-sorta tartean. Euskararen erakunde publiko orokorra dugun Euskaltzaindian batzordekide eta lan-kide ere izan gara.

Kanpora ateak zabaltzeko hasieratiko espiritu horren ildoan, azpimarratzekoa da 1990ean Jakin aldizkariak egindako jauzia, Arantzazuko fraideek beren jabetza eskuzabaltasunez besteren eskuetan utzi zutenekoa, enpresa guztiz beregaina bihurtzeko Jakin.

Azkenik, eta garai berriei eta etorkizunari begiratuta, 2006an berrogeita hamar urte betetzean, bere lehen urratsa egin zuen Jakinek Internet mundura jauzi eginge. Eta orain, 2014 honetan, gure aldizkaria inprimategian argitaratzen hasi zenetik 50 urte beteko diren honetan, urrats askoz sendoagoa egin nahi izan du, Jakin.eus Interneteko atari mamitsua eta aldizkari digitala eskainiz, paperezkoaren tradizioari uko egin gabe.

Atzera begiratu, beraz, 1956ko urte hartan Jakin abian ipini zuten ikasle gazte eta argi haiek gogoratu eta ohoratu nahi ditugu, ondorengo ibilbide luze hau nolabait markatu zigutenak. Orobat, urte askotan gurekin batera zuzendaritzan edo taldeko lanetan esku hartu duten guztiak ere gogoratu eta eskertu nahi ditugu.

## Euskal kulturgintzan barrena

1956an sortu zen aldizkari hura izan da gure ikur nagusia orain arteko ibilbidean. Bestela ere bai, baina batez ere aldizkariaren bidez plazaratu ditugu gure lanak eta gure konpromisoak. Taldearen izaera bera aldizkariari lotua ulertu dugu maizenik; baina beste hainbat plazaratan ere parte hartuz (*Egan, RIEV, Eusker, Sancho el Sabio, Karmel, Anaitasuna, Gogo, Euskaldunon Egunkaria...*).

Aldizkariak bere burua modu bat baino gehiagotan ulertu badu ere –pentsamendu aldizkaria, saio aldizkaria, gogoeta aldizkaria–, bada ezaugarri bat beti errepikatzen dena, kultura. Kultur aldizkaria da Jakin, halakoa izan da. Kultura nola ulertu, baina? Ez adiera kulturalista itxian, baizik eta adierarik zabalenean, herri baten bizimoldea, pentsamoldea adierazteko moduan. Horregatik jo du beti zabaletik gaien aukeraketan ere, zernahi gai eta nonahikoak jorratuz (erlijio eta ideologien kritika; marxismoaren analisia; nazioarteko arazo handiak: Sobiet Batasuna, ekologia, egungo filosofia, langabezia...); zabaletik, gaien aukeraketan eta ikuspegien aniztasunean ere zabaletik ibili da. Oraingo leloak (*herria, kultura, hizkuntza*), egungo ikusmoldea ez eze, historia osoan landu izan duena ere egoki laburbiltzen du.

Gaietan ez diogu mugarik jarri aldizkariari, baina begien bistakoa da gure lehentasuna non gauzatu den, euskarari eta euskal kulturari.

Euskara du Euskal Herriak bere hizkuntza bere-berea –bestelako kalifikazioak aparte–, eta geure-geurea dugu, beraz: hizkuntza gutxitua, ordea, euskal kultura baztertu eta pobretuan. Horra gure bizitzako funtsezko bizipena... Horregatik, geure buruen nortasun-baieztapenaren ariketatzat ez ezik, Euskal Herriaren duintasun- eta askapen-zerbitzutzat ulertu izan dugu geure lana. Eus-

kararen eta euskal kulturaren aldeko langileak, militanteak eta profesionalak izan garela aitor genezakeela uste dugu.

Euskal Herriaren hizkuntz eta kultur berreskurapena, berriz, euskal herritar guztien, euskaldunen eta erdaldunen, ahaleginean datza, denon arteko herri komunitate osotu eta bakezkoa lortzeko. Herritar bakoitzak du bere eginkizuna prozesu horretan.

Geure herriaren hizkuntza integraltzat hartu izan dugu euskara; hau da, euskaldunon bizitza pertsonal eta sozial osoan erabiltzekoa eta kultur arlo eta maila guztietan baliatzekoa. Euskal Unibertsitatearen helburua eduki du beti Jakinek bere lanean, eta 'euskal unibertsioaren' ametsa buruan.

Horretarako euskara bera gaurkotzearen alde saiatu da Jakin, egungo euskal herritarren komunikazio-premiei erantzuteko eta kultura modernoa adierazteko tresna bihurtzeko ahaleginean. Ildo beretik, euskara batuaren aldeko apustu tinkoa egin izan du Jakinek, onartuz eta balioztatuz euskalkien garrantzia herritarren komunikazioan eta euskararen beraren bizitzan noski, baina beti ere azpimarratuz euskal herri modernoak komunikaziorako hizkuntza bat eta modernoa behar duela.

## **Herrigintza euskalgintzatik**

Azken 50-60 urteotan euskalgintzak eta euskal kultur-gintzak egindako urratsak handiak eta guztiz garrantzizkoak izan direla argi dago. Herritarren ekimen sozialari esker izan da hori funtsean, hasieran guztiz eta gero ere neurri handi batean. Horren fruitu dira gehienbat: lkastolen gaurko sare trinkoa, alfabetatze-euskalduntzearen mugimendu zabala, euskarazko komunikabide hainbaten emaitza, bertsolaritzaren osasun ederra, euskal unibertsiterako bidegintza. Lorpen eta aurrerape non aitzinean, euskaldunok geure buruarekiko konfian-

tza edukitzeko eta berresteko moduan gaude, betiko galtzailearen sindromea baztertuz.

Hala ere, jabetuta gaude gure alorrek oraindik dituen ahulezia handi eta ugariez, eta aurrera begira burutu beharreko lan erraldoiaz. Helburua lortuko badugu, behar-beharrezkoak izango dira herritarren irudimena, kemena eta militantzia; eta, bestalde, hobeto eta etengabe eratu, zabaldu eta sendotu beharko da euskal kultur komunitatea, non herritar guztiak izango baitira, bakoitza bere erara, euskal kulturaren sortzaile eta euskal kulturaren hartzaile: kultur sorkuntza elikatzeke eta kultur industria indartzeko.

Ukaezina da azken hogeita hamar urteotan Euskal Herriko erakunde publiko hainbaten ahalegina eta emana, euskalgintzaren eta euskal kulturaren aldekoa. Erakundeen babes eta laguntzak jauzi kualitatiboa ekarri du, bizirauteko batzuetan, proiektu berriak garatzeko bestetan. Horren ondoan bestelakorik ere badugu, ordea: erakunde publiko hainbaten (estatal, autonomiko nahiz lokalen) sentiberatasunik eza, are kontrako politika oldarkor eta iraunkorra, euskararekiko eta euskal kulturarekiko.

Euskalgintzan eta euskal kulturgintzaren aldeko politikaren ildoko erakunde publikoen eta alor horietan diharduten ekintzaileen (norbanako, talde eta elkarleen) arteko elkarrizketa eta lankidetzaren behar-beharrezkoak direla uste dugu, elkarrekiko mesfidantzak baztertuz, eta harreman-artikulazio egokiaren baitan.

Euskal Herria bere osotasun historiko eta geografikoan begiratu nahi izan dugu, iragan eta gaurko erakunde, barruti eta administrazioen gaintetik, nahiz eta errealitate banatu hori gogoan izan dugun (Nafarroa, Araba, Iparraldea...).

Erakunde publikoei dagokie beren plangintza orokorraren barruan herritarren ekimen kulturalak onartu eta indartzea, kulturgintzari libertatearen eta aniztasunaren

eremuak zabalduz eta haien lanerako azpiegiturak eratu. Ez dugu gogoko izan, ostera, kultur proiektu instituzional handien politika, baldin eta ekimen sozialeko proiektuei beren humusa xurgatu eta lurra erreko badiete horrelakoek inguruan. Piramide erraldoiak, basamortu zabalez inguratuak, erakargarriak izan daitezke bisitari eta turistentzat, baina ezer gutxi ekarriko diote herriaren beraren kultur dinamikari; zelai berde-zabal edota ongarriz aberasturiko soro ikusi nahi genuke euskal kulturgintzaren alorra.

Euskal kulturgintzaren planteamendu modernoak kulturaren beregaintasuna eskatzen du. Euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren autonomia tinko landu eta zaintzekoa da indar eta botere ideologiko, politiko eta ekonomikoen limurketa eta eraginpetik; baita erakunde publikoen gehiegizko kontrolpetik ere. Aitzitik, jada 1996an esana dugun bezala, azpimarratzekoa da euskal kulturgintzak bere hitza eta bere itzala behar dituela handitu mundu politikoaren aurrean eta bere erakarmena zabaldu mundu ekonomikoaren barruan. Euskal kulturak guztiz beregaina behar du, ez da azpisail edo kategoria huts, ez eta menpeko edo kolonia. Kulturgintzaren alorrek, hori bai, ez dute gainerako sektore eta alor sozialetatik aparteko mundua eratu behar; alderantziz, horiekin elkarreraginean jardun behar dute etengabe. Eta, aldi berean, herrigintzaren bidean euskaltzaletasunari aitortu behar zaio zentraltasuna.

## **Iraganari etorkizuna**

Jakinek badu iragan bat. Iragan horren emaitzak webgune digitalean bildurik daude. Baina guretzat iragana, memoria, ez da panteoi bat. Iragan hoberena gaurkoa zabaltzen duen hori da, etorkizuna garatzeko baliagarri den hori. Gure iragana etorkizunaren zerbitzuan jarri nahi dugu horregatik.

## ESKUTIK

Xede horrekin, hainbat aldaketa bideratu ditugu. Labur-labur, hiru nagusiak hauek lirateke: bat, Jakin Fundazioa izango da aurrerantzean, alegia, ondare material eta ez materiala osorik proiektu berrietarako bermaturik gelditzen da. Bi: paperezko aldizkaria orain arte Jakinen ikur nagusia izan bada ere, aurrerantzean, paperezko aldizkariaren ondoan eta horren gainetik gune digitala indartuko da, eraginkorragoa izan dadin. Eta hiru, eta batez ere: lantalde berri batek hartuko du zuzendaritza, euskal kulturaren erronka berriei aurre egiteko asmoz.

Gure belaunaldiari dagokion une honetara iristean, etorkizuna molde berrietan segurtatu behar dugu, eta hori da, hain zuzen, datozen aldakuntzen bidez nahi duguna. Hazkunde berrietarako egokiera da hau. Horrela, euskal kulturaren aro berri honetan kokagune berria izango du Jakinek, baliabide eta euskarri berriei esker, proiektu berriei esker, eta lantalde berriari esker.

Eginkizun dugun berehalakoa gure iragana baino ederragoa izango dela sinetsita gaude. Horregatik, aldeztu aurretik ere eskerrak eman nahi dizkiogu lantalde berriari, jada egindakoari etorkizuna ziurtatzeko gogo eta adorea erakutsi dizkigulako. Ongi etorriak, eta esker mila zuoi. 🐬



# Jakinen lezioa

**Lorea Agirre**  
Talde berriaren izenean

**E**tortzeko nork egin digun leku jabetuta, noren ondora gatozen ohartuta, ondare oparo hori esku artean ikusita, ez da harritzekoa euskal kulturgintzaren eta herrigintzaren bihotzaren txoko batean sartzen sentitzea. Gatozen talde horretara sartzea ohorea da, esan beharrik ez dago. Baina tokatzen da esatea. Jakinlari berriok antropologia, artea, filosofia, kazetaritza, liburugintza, sorkuntza eta soziologiaren eremutik gatoz, alegia, euskal kulturgintza eta herrigintzatik. Liburu tartetatik adina ekintzatik. Taldean gatoz, eta taldera gatoz.

Orain ia hirurogei urte Jakin argira ekarri zutenek eta azken lau hamarkadetan gidatu dutenek, bide luzea egiteaz gainera, proiektua sortu, hazi eta sendotzeaz gainera, Jakin ezinbesteko erreferentzia bilakatu dute euskal kulturaren baitan. Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi, Paulo Agirrebaltzategi eta Joan Mari Torrealdei jakinlari historikoek militantzia lan profesional eskerga egin dute euskal kultura dagoen lekura iristeko. Eta hori ezagutzea beharrezko da. Bistan da, ez dute bide errazena aukeratu, ez dute nahi izan nonbait, jakitun seguruenik, sarritan, bide zailena dela merezi duena. Ederrena.

Jakinek herrigintzak egin duen bide bera egin du, eta aldi berean herrigintza bera egin du. Biek elikatu dute elkar. Jakinen 246 aldizkariak zenbakiz zenbaki zopizartu, eta euskal herrigintzaren historia entziklopediko bat agertzen zaizu begien aurrera.

Jakinen orrialdeetan inprimatu dira azken 60 urteotan euskal kulturaren sortu eta bilakatu diren auzi eta eztabaida nagusiak: hizkuntzaren batasunaren beharra, kultur sorkuntza eta transmisioaren kezka, euskal hezkuntza eta curriculumaren urgentzia, abertzaletasunaren eta ezkerren arteko auzia, euskalduntasunaren definizio berria, nazio arazoaren korapiloa hemen eta munduan, ekonomia ereduaren talka, garapen paradigma berriak. Eta gehiago. Eta hori dena mundu mailako eztabaida eta ekarpen ideologikoen argitan kokatuta. Eraiki nahi dugun gu hori elikatzea izan du xede Jakinek, baina ez autarkiatik, pentsamendu kritiko baina ireki eta eraikitzaile batetik baizik.

Ohorea, bai. Baina ardura ere bai. Ardura, Jakinek iritsi duen mailari eustekoa. Baina baita Jakin urrats bat aurrerago eramatekoa ere. Hori da gure asmoa. Jaso dugun baino aitzinago kokatzea. Eta sendotzea, berri-tzea eta berrasmatzea. Hedatzea eta belaunaldi berriei ateak zabaltzea, bidea egiten eta uzta ematen jarrai dezan. Eta erronka bat ere bada, ze pentsamendua eraikitzea inoiz baino beharrezkoagoa den garaiotan, behar-bada, inoiz baino zailago delako pentsamendu aldizkari bat irakurlearen begietaraino iritsaraztea.

### **Bost mugarri bidean**

Jakin helburu garbi batekin jaio zen: «gure euskera kultur-joera ta kultur-ats guzi-guzietan» murgiltzea, eta «euskera egungo arazoetara egokitu eta edotariko gaia ta arazo euskeraz» aztertzea. Sortzaileek, 1956an, Arantzazun, intuizio oso argia izan zuten.

1968an birsortu zen Jakin, Joan Mari Torrealdaik zuzendaritza hartu zuenean. Orduko zenbakiaren editorearen euskararen eta kulturaren arteko lotura indartu beharra azpimarratu zen: «Ta zerbait ba dakigunez ez Unamuno'k ta ez bestek, ez dutela arrazoirik frogatu nahi dugu, konbentziturik baigaude euskera ta kultura

ez dirala etsai». Gaurko begietara harrigarri gertatzen da hori idaztea, baina esan beharra zegoen, nonbait. Ez da txarra nondik gatozen ezagutzea.

Hutsuneak ere argi identifikatzen zituen orduko editorialak:

Batasuna dugula jomuga: egin gabe dago. Idazkera batu bat behar dugula: egiteko dago. Gaurko munduari egokituriko hiztegi batzuk zaizkigula beharrezko idazleori: egiteko daude. Euskera arloan, pentsa diteke, 'beharrezko' ta 'egiteko' gauza bat dala, ez bi.

Editorial berean, euskara eta kultura ezkontzetik Jakin semea jaio zela idatzi zuten. Orain, alabak ere badirela idatzi beharko dugu.

1977an, hamaika urteko zentsuraren isilaldi behartuaren ondotik, goitik behera berrituta kaleratu zen Jakin, eta euskal kultura modernoa eta kaletarra aldarrikatua zuen.

Kultur aldizkaria da Jakin. Kulturaz, herri baten biziera, lana, sentiera, pentsaera, jakitatea, jokaera, sentikortasuna ulertzen dugu. Kultur-, pentsamendu- eta saio-aldizkari kritikoa izanen da Jakin. [...] Euskal Herrian errotzen da Jakin, eta Euskal Herrirako. 1960az geroztik herri honek sortu eta bereganatu duen dinamika berriaren joerak eta ikuspegiak bezala ekarriak, haintzat eta ontzat emanik abiatzen gara. [...] Euskal kultura, lehenbaitlehen kultura modernu bilaka dadin, eta kultura unibertsalak euskal kulturaren berezitasuna onar dezan.

Kulturaren oinarriak jarrita, transmisioaren gaiarekin egin zuen topo Jakinek 25 urte bete zituenean, eta 1981eko editorialean «belaunaldien arteko eten eta gatazka dakartzan elkar ez ezagutze hori gainditu beharra» nabarmendu zuen, eta horretarako «irekitasuna» eta «antidogmatismoa» aldarrikatu.

50 urte bete zituen Jakinek 2006an. Bazen zerbait, gizartea bost hamarkadetan zenbateraino aldatu zen kontuan izanda.

Bide luzea 1956tik 2006ra doan bidea! Mundu oso bat ikusi du aldatzen: ciclostila eta interneta, Francoren autarkia eta amerikarren globalizazioa, zentsura eta informazio gehiegizkoaren desinformazioa, maisu pentsalarien garaia eta adituena garaia, euskararen debekua eta desideologiaren basamortua.

Bost editorial horien idazkera eta ortografia diferentek azaleko aldaketak baino zerbait gehiago adierazten dute: h-aren agerpenaren azpian, euskal kulturgingutzak egindako bide oparoa bistaritzen da. Herrigintza bizi baten berri ematen du, bere indargune, lorpen eta ahulguneekin.

Bost editorial horietatik bost baieztapen nabarmendu daitezke, orain eta hemen jakinlari berriok sinatzeko modukoak: zernahi euskaraz ematea; euskarak kultura behar duela aurrera egingo badu; kultura horrek moderno, antidogmatiko eta irekia behar duela izan behar dela berriei transmitituko bazaie; unibertsal izateko modu bakarra partikular izatea dela; eta, partikular izateko nork bere pentsamendu propioa garatu behar duela eta mundua nork bere esperientziatik aztertzeo obligazioa duela.

Horra mugarriak. Horra Jakinen ondarea. Horra Jakinen lezioa. Bistan da Jakinen 'misioa' ez dela bukatu, euskal kultur eta herrigintzarena amaitu ez den bezala. Pentsamendu propioa garatzen jarraitzea funtsezkoa da, bai, geure begirada geure buruari eta munduari eskaintzeko. Eta horretan bide luzea dago oraindik egiteko. Jakinen galtzak bete lan dugu, jakitun gara.

### **Gugintza, herrigintza**

Dugu diogu, jakinda Jakin taldea dela. Horrela izan dela hasiera-hasieratik. Eta, areago, Jakin komunitatea dela, komunitate bati zor zaiola. Herrigintza dela. Jakin gu bat dela. Izan nahi duen gu bat: gugintza bat, esa-

tea aizu bada. Euskal Herriari etorkizun bat opa diogunok osatzen dugu Jakin. Horrela esan genezake, edota, bestela ere bai: gure ingurukoei eta ondorengoei herri sustraitu eta ireki bat eskaini nahi diogunak gara Jakin. Gainontzeko herrietako jendeek bezala. Horretan ere ez gara diferente.

Garai berrietara beti jakin izan du egokitzen Jakinek, eta garai berriak ekartzen ere bidelagun izan dute euskal kulturako gainontzeko eragileek Jakin. Eta orain ere asmatuko du. Oraingo garaioak inoiz baino aldakorrago direla dirudite, baina sakoneko arazoak betiko berberak ez ote diren: galderak aldatu dira erantzun berrien bila gabiltzalako, baina arazoak bertsuak dira.

Garai berriak. Gurean ere bai. Pentsamendu kritiko eta eraikitzailean sakontzeko garaia dela sinetsita gaude. Zer eta nola egin hausnartzeko unea dela, herrigintza-  
ren bidean urratsak zehaztu eta ematekoa, nazio kultural etendua, hizkuntza gutxitua, geografia zatikatua eta administrazio politiko irendua osatuz eta sendatuz joateko. Euskalgintzak, kulturgintzak eta herrigintzak azken hamarkadetan indarra eta jakinduria metatu du. Orain geurez jokatzeari tokatzen zaigu, geure bizi-nahiarri lur bat emango badiogu. Leku egin eta erronka bota digute, eta guk onartu. Guri ere, bistan da, bide zailena begitantzen zaigu beharrezkoena. Eta ederrena. 🌊

## KATALUNIA BIDEAN

**25** Iraultza demokratiko bat Europaren bihotzean  
Vicent Partal

**39** Funtsezko agiriak independentziarako bidean

**43** *Iritzi bilketa*: Katalunia euskaldunen begietatik  
Itziar Aduriz  
Martin Aranburu  
Aitor Arruti  
Aritz Galarraga  
Gorka Knörr  
Elisabet Zunzunegi

# Iraultza demokratiko bat Europaren bihotzean

Vicent Partal

VilaWeb egunkari digitalaren zuzendaria

2013ko irailaren 11n, bi milioi katalan kale eta bideetara atera ziren eta 400 kilometroko giza katea osatu zuten, eskuz esku. Iparraldetik Frantziaren agindupeko El Voló-tik hasita Valentziar Herrialdeko Vinaroseraino, nazio zahar eta aldi berean gazte bat kalera irten zen independentziaren aldarrikapen argi eta zehatzarekin. Egun horretan gertatutakoaren argazki lekukotzak horrelaxe erakusten du (ikus <http://gigafoto.assemblea.cat>) ziur aski Bigarren Mundu Gerraren bukaeratik Europan ikusi den manifestazio politiko handiena izan dena. 'Via Catalana' izena hartu zuen.

Izen hori ez zen inola ere anekdotikoa: 1990eko hamarkadaren hasieran Molotov-Ribbentrop itunaren aurka Estonia, Letonia eta Lituania lotu zituen 'Via Baltica' giza katearen oihartzuna zekarren. 'Via Baltica' hori, aldarrikapen demokratiko eta independentziarako atari gisa, Katalunian izen bera erabili zuen ekitaldirako inspirazio argia izan zen.

Urteak ez dira alferrik igarotzen, eta izena izan zen, funtsean, bat etortze bakarra. 'Via Baltica' hartan jendea ahal zuen bezala antolatu zen; aitzitik, Interneti esker, Via Catalanak herri antolamendu miresgarria izan zuen. 600.000 lagunek baino gehiagok eman zuten bertan izena web formulario baten bidez. Datu guztiak utzi zizkioten antolatzaileari,

Assemblea Nacional Catalanari (ANC), eta nora joan nahi zuten aukeratu zuten, ibilbidearen baitan hartu beharreko leku zehatza. Gero, irailaren 11n, hiri eta herri bakoitzeko lagunak autobusetan joateko antolatu ziren, egin beharreko kilometro guztiak egin zituzten eta jarritako arauak bete zituzten: ordu erdiz eskuz esku lotuta egotea, era horretan hegazkin eta argazkiek manifestazioaren arrakasta mundu osoari erakuts diezaioten.

Ez zen istilurik sortu. Ezta bat ere. Ezta trafiko arazorik ere, nahiz eta, uda amaierako jaiegun batean, Via Catalanak iparretik hegoraino herrialdeko errepide nagusietako bat bete zuen. Ez istilurik, ez aurpegi txarrik. Herri antolakuntzaren ikuskizun zirraragarria, valentziar zatian pittin bat hautsi zena: Guardia Zibilak, Katalunia osoan agertu ez bazen ere, zenbait istilu eragin zituen lurralde horretan, eta kontzentrazioa oztopatzen saiatu zen. Izan ere, bezpera arte ezin izan zen lortu –eta errekurtsio judizial baten bitartez– Via Catalana valentziar lurraldean baimendua izatea. Estatuak pentsa dezake, beharbada, dagoeneko Printzerria galdu duela, baina lurraldearen gainerako eskualdeetara kutsatzea saihestu behar dela.

Herri autoantolakuntzaren arrakasta izan zen. Izan ere, Viaren sortzaileak, hori posible bihurtu zutenak, ez ziren ez alderdi politikoak ez gobernu katalana, oinarriko erakunde bat baizik: ANC. Errealitate katalana zorrotz jarraitzen duen inor ez da harritik baldin eta baieztatzen badut ANC, bi-zitza publiko katalanean izandako agerpen meteorikoa gorabehera, aspalditik ari zela eratzten eta garatzen.

## **Gizarte zibila estatugintzan**

ANC formalki mugimendu berria da, baina politikoki eta sozialki 2009 eta 2011 artean Katalunia osoko herri eta hirietan (Bartzelona barne) independentziari buruzko herri galdeketak sustatu zituen mugimenduaren jarraipena da. Herri antolakuntzaren indarra argia eta harrigarria izan zen une hartan ere. *Ad hoc* antolatutako hauteskunde sistema bat prestatu zen:



hautesle errolda, hauteslekuak, ordezkariak, hauteskunde kanpaina... Milioi bat katalanek eman zuen botoa benetako hauteskunde prozesua izan zen horretan: alderdi politikoen mitin eta kartelak, goizetik botoa emateko errenkadan jarritako herritarrak, kazetarien flashen aurrean botoa ematen zuten herritar ospetsuak, biharamuneko titulu handiak... Ezinezkoa zen hauteskunde baten eta 'horien' arteko ezberdintasun aipagarriarik topatzea. Baina bazegoen. Antolakuntzan ez ziharduen ezein gobernurik, ezein estaturik. Herriak hartu zuen estatuaren jarduna, hain zuzen ere administrazio batentzat antolatzen zailenetakoa den zeregin bat garbitasun osoz abian jarritz: hauteskundeak. Nazioarteko behatzaileek ez zuten gertatzen ari zenari buruzko miwesmena ezkututzen.

Katalunian azken hamarkadetako herri mugimendu handiena ikus daiteke abian, eta ezin hobeto funtzionatuz gainera. Independentzia nazionalaren alde

Horixe da, beraz, gaur egun Katalunian gertatzen ari denaren eta beste edonolako mugimenduren baten arteko ezberdintasun nagusia. Katalunian azken hamarkadetako herri mugimendu handiena ikus daiteke abian, eta ezin hobeto funtzionatuz gainera. Independentzia nazionalaren alde. Baina ez soilik horren alde. Izan ere, jendeak behin eta berriro errepikatzen du mugimendu hau demokraziaren alde dela. Baina beharrezkoa ote da herrialde demokratiko batean demokraziaren aldeko mugimendu bat?

Ez da ahantzi behar zein den argumentu nagusia: independentzia nazionala. Behatzaile politiko guztiak txundituta geratzen dira independentzia prozesuari eusten dioten eta herri mugimendua bide instituzionaletatik bideratzen saiatzen ari diren alderdien koalizioa ikusten dutenean. Kristau demokratak eta antikapitalistak, besteak beste, argazki berean batera ateratzen dira. Beste edozein lekutan guztiz pentsaezina den argazkia, hain zuzen. Eta, batez ere, ez garelako soilki

argazkiei buruz ari. Argazkiak ateratzen dituzte elkarrekin, baina, bereziki, egundoko funts politikoa duten hitzarmenak ixten dituzte.

Azken lau urteotan, beti ere kaleko presioaren eraginez, alderdi katalanak independentziaren –edo, gutxienez, autodeterminazioaren– aldeko jarrera hartuz joan dira. Esquerra Republicana izan da alderdi independentista tradizionala Legebiltzarrean, baina beti hirugarren eta bosgarren postuen artean eserleku kopuruari dagokionez. Azken hauteskundeen ondoren, ezkerreko alderdi nagusia eta herrialdeko bigarrena da. Bera da, gaur egun, oposizioko alderdi nagusia, baina badakite egoera hori konbinatzen –independentzia prozesuaren inguruan, bederen– *Convergència i Unió* (CiU) alderdiari eta bereziki Mas presidenteari eskaintzen dioten babesarekin.

## **CiU, independentismora ziztu bizian**

CiU, boterean dagoen demokrata liberalen eta demokristauen arteko koalizioa, independentista bilakatu da hala-beharrez. Jakina, beti izan dira nazionalista katalanak, baina CiUk, duela oso gutxi arte, ez zuen independentziaren aldeko apusturik egiten ezta erretorikoki ere. Ez zuen sektore subiranistik, EAJk izan dezakeen bezalakorik. Independentzia oso urrun zegoen CiUren mentalitate esparrutik, eta hala eta guztiz ere, koalizioak, bereziki CDC alderdiak, itzulingururik gabe aldarrikatzen du orain autodeterminazioa eta independentzia direla alderdiaren xedeak. Ez hori bakarrik. Jordi Pujolek, *Convergència*ren lider historikoak, hamarkadetan zehar independentziaren aurkakoa izan denak, oker zegoela erabaki du: «edo independenteak gara edo bazterrean geratuko gara». Ibilbide luzeko hainbat pertsonen –Pujol, edo Maragall presidentearen orbitako sozialismo katalaneko izen handiak– bilakaera independentistaren eraginak prozesuaren aldeko zulo galanta ireki du gizartean. Laurogeiko hamarkadan Espainian eroso sentitzen ziren katalan askok beren burua aldatzeko bide irekia ikusi dute Pujolen aldaketan. Eta,

horrenbestez, independentismo katalana gehiago elikatzen da inoiz independentista izan ez den jendeaz independentista tradizionalaz baino. Eta hortik egoera arraroren bat sor daitekeen arren, horrexek indar handia ematen dio.

Esquerra eta CiUren alboan, azpimarratu beharrekoa da Iniciativa per Catalunya eta CUPEk egindako ekarpena ere. Ezkerreko bi indar katalan horiek urruneko lekuetatik datoz. PSUCen komunismoa, berdeak edo trantsizioko independentismo borrokalaria. Baina batzuek zein besteek jakin dute errealtatera egokitzen eta beren indar eta ahalmenak zeharkako mugimendu baten zerbitzura jartzen. Bi indar horien presentziak gizarte sektore gehiago atxikitzen dizkio mugimenduari, batez ere gizarte mobilizazio ahalmen handia duten sektoreak.

PSCk berak ere, hasiera batean, erreferendum deialdiaren alde sinatu zuen, independentziaren aurka dagoen arren. Bigarren alderdi katalana izandakoaren joan eta etorriak ez dira errazak esplikatzen; gaur egun, alderdiko buruzagiek bunker batean ixtea hautatu dute, herrialde osoan zehar bere militanteak alderdia utzi eta mugimendu independentistetan sartzen diren bitartean. Bere kontraesanetan harrapatuta, PSC politika katalanean bazterreko alderdi bilakatzear dago.

Era horretan, Alderdi Popularra eta Ciutadansko espainiar nazionalistak bakarrik daude guztiz prozesuaren aurka, eta estatu autonomikoari bere horretan eustearen alde. Zenbakietara etorritz, egungo Legebiltzar katalanean: 87 diputatu prozesuaren alde dauden alderdietakoak dira; 20 diputatu sozialistak dira, Espainiarekin hitzartutako erreferendumaren alde daude baina ez independentziaren alde (nahiz eta taldearen barnean gehiengo subiranistarekin batera botoa ematen duten hiru diputatu dituzten); eta 28 diputatu soilik daude prozesuaren eta erreferendumaren guztiz aurka. Azken aldiko inkesta guztiek erakusten dutenaren arabera, gainera, hurrengo hauteskundeetan alderdi independentistek are diputatu gehiago izango lituzkete, nahiz eta bloke bakoitzaren barneko ehunekoak desberdin banatuko liratekeen.

Erreferenduma deituta egonik, zaila da panorama hobea irudikatzea. Eta galdera da: nola izan da hori guztia posible?, nola abertzaletu da Katalunia hainbeste eta hain azkar?

## **Autonomia Estatutuaren ukoaren ondorioak**

Azalpena erraza da. 2003an, ezker katalanak hauteskundeak irabazi zituen, eta Pasqual Maragall presidente sozialistak Espainiaren eta Kataluniaren arteko erlazioa berriro negoziatzea erabaki zuen. Maragall zen azken espainolista. Espainolista, hitzaren zentzu positiboan. Mendetan zehar, pentsamendu korronte bat egon zen Katalunian Espainiarekiko erlazioa Kataluniarentzako onuragarritzat jo zue-na. Katalunia askea Espainia handian, esan ohi zen. Ideia horrek ez zuen batere zerikusirik Francoren edo Aznarren

Espainiarekin. Guztiz alderantziz: Katalunia gero eta askeago sentituz gero, orduan eta hobeto. 1992ko Olinpiar Jokoak, zentzu horretan, espainolismo erregenerazionista katalanaren adierazpide nabarmena izan ziren; gogoan har dezagun Maragallek berak lideratu zituela. Gaur egun ez da inor gogoratzen, baina Espainiako errege-erregina *Els Segadors*

Maragallek herrialde  
eredu hauxe  
ordezkutzen zuen:  
irmoki katalanista,  
baina Espainian egotea  
ezinbestekoa zela  
pentsatzen zuena

ereserkiaren doinura sartu ziren Olinpiar Estadiora, eta ez Errege Martxaren doinu pean, soilik lehenaren atzetik entzun baitzen. Gaur egun halakorik ezinezkoa izango litzateke, baina orduko hartan halaxe gertatu zen.

Maragallek, bada, herrialde eredu hauxe ordezkutzen zuen: irmoki katalanista, baina Espainian egotea ezinbestekoa zela pentsatzen zuena. Eta beste aldea konbentzitzerakoan izandako porrota, bere proposamenak jaso zuen ezezko gogorra izan da, azken buruan, gaur egun gertatzen ari denaren gako nagusia. Mundu guztiak ikusi ahal izan du zer gertatu den,

eta mundu guztiak ulertu du zer eginik ez dagoela. Beharrezkoa zen, ziur aski, Espainiaren mespretxua zuzenean politikari sozialista eta katalanista baina ez nazionalista baten asmoaren aurka ager zedin. Eta PSOEek leku guztietan agintzen zuen aldi berean. Horrek guztiak azalpen alderdikoi edo aitzakia taktiko guztiak saihesten zituen. Besterik gabe, Espainiak ez du inola ere onartzen Katalunia aske hori, ezta Espainia handi baten barnean izatea eskatzen duenean ere.

Funtsezko unea Autonomia Estatutu berriaren onarpena izan zen. Legebiltzar katalanean bozkatu zen, negoziazio oso gogorren ondoren, aldeko 125 botorekin eta aurkako 15 botorekin soilik. Aldeko botoa eman zuten PSC, ERC eta ICVk osatutako hirukoak gehi CiUk. Aurkakoa, PPK soilik.

Kopuru horien irmotasuna gorabehera, inork ez zuen inola ere aldebakarreko ekimenik planteatu. Gaur egun barregura ematen du Madrildik behin eta berriro Kataluniari aldebakartasunez ekitea aurpegiratzen zaiola ikusteak. Kataluniak aldebakartasunez jokatzeko du, beste modura jokatzeko saiatzea denbora galtzea besterik ez dela berretsi duelako. Estatutuekin, Estatuak tranpa egin zuen. Eta horixe besterik ez da ari ordaintzen gaur egun.

Legez, Estatutua Espainiako Legebiltzarrean berretsi behar zen eta, ondoren, Katalunian erreferendum batean bozkatu. Inork ez zuen planteatu legea saihestea. Guztiek zekiten Estatutua Madrilen dezente murriztuko zutela. Izan ere, PSOEek berak hainbat emendakin iragarri zituen Bartzelonatik, Estatutua onartu zenetik ordu gutxi batzuk besterik igaro ez zirenean. Hala eta guztiz ere, legea lege zen, eta araua arau. Kataluniak, beraz, Espainiako Konstituzioak zehaztutako urrats guztiak zehatz-mehatz jarraituz bete zuen ibilbide osoa. Iseka edo sarkasmoa bera ere onartuz. Zapaterok, hauteskunde kanpainako sozialisten azken mitinean, halaxe agindu zuen, «Kataluniako Legebiltzarrak bidaltzen didan Estatutua» onartuko zuela. Alfonso Guerrak ñabardura bat erantsi zuen: «eskuila pasatu diogu eta dagoeneko ez du bere aitak ere ezagutzen». Alderdi Sozialistaren jokamoldeak Katalunian

eragin zuen ezinegona ikaragarria izan zen, eta Maragallen ordeztu Montilla jartzea ekarri zuen, horretarako presidentearren gaixotasuna zitalki baliatuz. Epe luzera, ezinegon horrek berak ekarri zuen egun ikus daitekeen egoera hau: PSCk bere militante gehienak galdu ditu eta gutxieneko gizarte-oinarri batekin geratu da, bazterreko alderdi izatera kondenatuta.

Eta PSCren jokamoldea penagarria izan baldin bazen, are penagarriagoa izan zen PPrena. Estatutua Zapaterori min egiteko bide egokia zela pentsatu zuten, eta Estatutuaren aurkako sinadura bilketa zentzugabe bati ekin zioten, nahiz eta sinadurak biltzen zituztenek argi eta garbi 'Kataluniaren aurka' eskatzen zituzten. Kanpaina horrek katalanarekiko gorrotoa berreskuratu zuen Espainian. Frankismoaren oinarri ideologikoetan zegoen gorrotoa, PPren oinarri soziologikorik argiena den frankismo horretan bertan. Une horretatik aurrera, espainiar eskuinaren bozgorailuek moderazio gaitasun guztia galdu zuten, eta katalanok inoiz ikusi eta entzun gabeko irain, eraso, manipulazio eta gezur andanari egin behar izan genion aurre egunero-egunero. Katalunian topiko bat da baieztatzea PPK garaipena eskaini diola independentismoari. Sinpleki, hainbestearinoko basakeriak herrialdea batu du eta Espainiarekiko erabateko asperraldia eragin du.

## Duintasunagatik

Egungo independentismoa azaltzeko, ezinbestekoa da aintzat hartzea duela urte batzuk gehiengo ez zela independentista. Areago, alderantziz gertatzen zen. Eta gehiengo hori ez zen independentista bilakatuko egunero Madrilgo egunkari eta telebistek iraindu izan ez balute. 'Han' inork onartzen ez gaituelako sentsazioa izan ez balu. Diruaren gaia plazaratzen denean –defizit fiskala, finantziario mailako tratu txarra, inbertsio gabeziaren eskandalua–, denek onartzen dute auzi hori garrantzitsua dela. Baina, azken buruan, beti agertuko da ahotsen bat hauze gogoraraziko diguna: hau guztia 'duintasunagatik' gertatzen ari da. Irainen aurreko duintasunagatik,

estatu kolpe baten aurreko duintasunagatik, horixe izan baitzen eta esanahi horixe izan baitzuen Estatutuaren aurkako Auzitegi Konstituzionalaren epaiak.

Kataluniak Estatutuaren alde bozkatu zuen erreferendumean. Guerrak aipatutako eskuila hain izan zen nabarmena, ezen gobernuko alderdietako bat, ERC, aldendu egin baitzen eta Ezetza eskatu baitzuen. Baina, hala eta guztiz ere, Baieztzak irabazi zuen. Estatutuak bide instituzional osoa bete zuen, oztopoak gorabehera: Legebiltzar katalanak bozkatu zuen, Legebiltzar espainolak onartu eta zuzendu zuen, herritarrek erreferendumean berretsi zuten eta erregeak berak sinatu zuen. Eta, orduan, bonba lehertu zen.

Auzitegi Konstituzionalak Estatutua konstituzionala zenetz aztertzea onartu zuen, PPren eskaerari men eginez. Ezustekoa itzela izan zen

Hona hemen bonba: hori guztia gertatu ondoren, Auzitegi Konstituzionalak Estatutua konstituzionala zenetz aztertzea onartu zuen, PPren –Legebiltzar katalaneko hamabost boto mengelen eta gorrotoaren kanpainaren alderdiaren– eskaerari men eginez. Ezustekoa itzela izan zen. Auzitegi horrek ez zuen sekula hainbeste lege-berme zituen lege bat auzitan jarri; eta argi zegoen, bestalde, onartu ondoren aztertzeak berak soilik sekulako ondorioak izan zitzakeen legaltasun talka bat zekarrela. Horixe ekarri zuen, hain zuzen ere. Historia liburuek idatzita utziko dute Kataluniaren independentzia Auzitegi Konstituzionalako kideei esker izan zela posible. Eta, jakina, gehiegikeria hutsa lirudikeen arren, alderantzizkoa huts egiteko beldurrik gabe baieztatu daiteke: Auzitegi Konstituzionalaren epairik gabe Kataluniak espainiarra izaten jarraituko luke.

2010ean, Auzitegiak epaia eman zuen eta Estatutuaren 41 artikulua aldatu zituen, hura ezagutezin bihurtuz. Herritarren sumindura izugarria izan zen, eta egun gutxi batzuk geroago independentziaren aldeko lehen manifestazio handia eragin zuen.

## Aldebakartasunaren bidea

Òmnium Cultural elkarteak antolatutik, alderdi politikoen babesarekin, manifestazio horrek argi frogatu zuen Katalunia betiko aldatu zela. Ikaragarria izan zen, eta lehen aldiz bandera gehienak *izardunak* izan ziren. Eta gehien entzundako oihua 'independentzia!'. Montilla presidente sozialistak manifestazioa utzi behar izan zuen jendearen irainen poderioz, PSOEren jarreraren erantzuletzat jotzen baitzuten. Duran i Lleidari txanponak botatzen zizkioten espaloitik. Eta PPren tzako irainak ezin dira hemen errepikatu. Sumindura handia azaleratu zen larunbat horretan. Baina azken aldia izan zen. Ukitu magiko batez bezala, mugimendu independentistak Espainiatik erabat aldentuz erantzun zuen, eta ordutik aurrera ez da gehiago tentsio unerik sortu kalean. Hurrengo manifestazio handiak, ANCK 2012ko irailaren 11n antolatutakoak, aldaketa itzela ekarri zuen, gauetik egunerakoa. Sumindura alaitasun bilakatu zen. Mundu guztiak ulertu zuen aldebakarreko erabakiak hartzeko ordua iritsi zela. Eta, horrelaxe, lerro zuzen bat marraztu daiteke herri erreferendumetatik egungo egoerara arte. Ezaugarri nagusi batekin: gizarte katalanak ulertu du subiranotasuna erabili egin behar dela eta ez dela utzi behar. Baina, gainera, bat-batean askoz ere gauza gehiago argi ikusiko balitu bezala gertatu da.

Izan ere, gaur egun zaila da ez onartzea aldaketa handi horren atzeko arrazoi ideologiko eta praktikoak Francoren erregimenaren amaierara atzeratzen direla. Franco hil zenean, hitzarmen bat egon zen bere erregimenaren eta alderdi demokratikoen artean. Ez zen erabateko demokraziarik ezarri, Juan Carlos errege gisa onartu zen eta armadak 'lurraldetasun auziaren' gainean zuen kontrola ez zen auzitan jarri. Tribunal de Orden Público bezalako erakunde errepresiboak ere izena aldatzera mugatu ziren, beren jomuga euskal nazionalismoaren eta ezker muturreko taldeen aurka birbideratuz. Aldi berean, Francoren erregimenaren jarraitzaileei arazorik gabe ahalbidetu zaie beren alderdia sortzea



–Alderdi Popularra– eta beren erakundeak bizirik mantentzea –Francisco Franco Fundazioa, legezkoa izateaz gain, Estatuak finantzatzen du, eta diktadorearen hilobi erraldoia publikoarentzako irekita dago oraindik.

Egia da demokrazia 1981ean huts egindako estatu kolpearen ondoren loratu zela eta egoerak nabarmen hobera egin zuela. Baina Alderdi Popularrak hauteskundeak bigarren aldiz irabazi zituenean, 2000. urtean, Aznarrek galdutako denbora berreskuratzeari ekin zion eta Kataluniaren eta Estatuaren arteko itun tradizionalak hautsiko zituen kanpaina nazionalista espainola abiatu zuen. Hortxe gaude orain.

Espainiako Estatuaren erregresio demokratiko batean dago. Via Catalanaren egun berean, faxista talde batek Diadaren Madrilgo ospakizun ofiziala erasotu zuen. Politikari eta kazetariak erasotu zituzten, bandera eta sinbolo ez konstituzionalak erakusten zituzten bitartean. Baina erasotzaileak libre geratu ziren ordu gutxitan, soilik 300 euroko isunekin. Egundak berean, bestalde, auto gidari batek uko egin zion Valentziar poliziaren kontrol batean gaztelaniaz hitz egiteari, eta horregatik sei hilabeteko kartzelako demanda bat jaso du. Egundak ikusten ditugun anekdoten artean, bi besterik ez dira horiek.

Espainiar hedabide batzuk katalanen aurkako gorrotoa sustatzen aritu dira, eta espainiar politikari batek ere ez du galdetzen horren zergatia, ez dute ezer egin nahi hori ekiditeko. Valentziar Herrialdean, Uharteetan eta Aragoi katalana oldarrean jazartzen ari dira, nahiz eta lehen bi erkidegoetan hizkuntza ofizial izaten jarraitzen duen. Hezkuntzako espainiar ministroak haur katalanak «espainoltzeaz» hitz egiten du. Baita egin ere. Lau familia katalanek, lauk bakarrik, eskatu dituzte gaztelaniazko klaseak eskolan, eta Estatuaren aparatu osoa mobilizatu da horien alde. Kontraste ikaragarria, 125.000 valentziar familiak eskatu dituzte katalanezko klaseak: halakorik ez lortzeaz gain, Espainiako Gobernuaren erantzuna jaso dute katalana bere erantzukizuna ez dela esanez, bere erantzukizun bakarra gaztelania dela.

Madrilgo establishmentak katalanen aurka erakusten duen jokaera oldarkorra da katalanek espainiar demokraziarekin duten etsipenaren erantzule zuzena. FC Barcelonak jokatzen duen estadio guztietan agertzen dira espainiar banderak, sarritan bandera faxistak, eta katalanen aurkako irainak baimentzen dira. Aldiz, *izardunak* sartzea debekatzen da. Etengabeko neurri bikoitza.

## Arrazoi ekonomikoak eta harrapaketa fiskala

Hori guztia, dena dela, soilik emozioen esparruko auzi modura ikus liteke. Baina auzia areago doa. Espainiako Gobernuak hondamenera darama ekonomia katalana, tradizionalki

1986 eta 2010 artean  
Espainiako Estatuak  
213.933 milioi euro  
desbideratu zituen  
Katalunian bildu eta  
kanpoan inbertitu  
ziren zergetatik

Espainiako Estatuako garrantzitsuena eta Madrilgoaren lehia-kide nagusia. Eta katalanek zera galdetzen dute, logika osoz, zergatik ordaindu behar duten beste edozein lurraldek baino askoz ere gehiago eta zer arrazoirengatik zerga katalanak ez diren Kataluniara itzultzen eta beste leku batzuetan gastatzen diren, sarritan modu oso zalantzarrietan

gainera. 1986 eta 2010 artean Espainiako Estatuak 213.933 milioi euro desbideratu zituen Katalunian bildu eta kanpoan inbertitu ziren zergetatik. Aurrekaririk gabeko harrapaketa fiskal batez ari gara, urtero 10.000 eta 16.000 milioi euroko kopuruen artekoa. Zentzu horretan, ez dago Espainiarekiko 'elkartasunarentzako' mugarik; baina, Alemanian, aldiz, muga hori %4koa da, edo Kanadan %2koa. Katalanek urtero desagertzen ikusten dituzten zerga katalanen %10,2k ez dauka inolako justifikaziorik.

Baina hori ez da arazo bakarra. Jakina, baldin eta etengabe halako diru kopuruak desbideratzen badira, Kataluniako Gobernuak zailtasun larriak ditu herrialdea jardunean

edukitzeko. Baina, horrez gain, zilegi da galdetzea: zertarako? Duela 30 urtetik hona, Espainiako Gobernuak ulertzen zaila den egitasmotan ari da gastatzen diru katalana. Itxita dauden aireportuak. Sarritan bidaiaririk gabe eta edozein hiritatik Madrilera doazen abiadura handiko trenak. Aitzitik, ez dago Bartzelona eta Valentzia arteko tren azkarrik, Estatuan gehien erabiltzen den trenbidea izan arren. Arrazoia? Espainiar ekonomian beste hainbat gauza bezalaxe, soilik politikoa da. Azpiegiturak beren nazioa eraikitzeko eta gurea suntsitzen saiatzeko erabiltzen dituzte.

Espainiar ekonomia amets gaizto hutsa da, eta katalanak ari dira hori ordaintzen. Enpresa pribatizatuek, sarritan frankismoko familia nagusien eskuetan, beren zerbitzura dute Estatua. Gobernuak enpresa horiei laguntzeko aldatzen dituzte legeak edo sortzen dituzte berriak; enpresa horiexek dira, gainera, dena zikintzen duen ustelkeria-gradu ikaragarriaren erantzule nagusiak. Erantzukizun publiko gabezia itzela dago: adibidez, epaileak ustelkeria ikertzeko Alderdi Popularrari bere diruzainaren ordenagailua eskatzen dionean, Alderdi Popularrak ordenagailu hori ezabatzea erabakitzen du. Eta ez da ezer gertatzen. *The Economist* astekariak Hirugarren Munduko herrialde gisa deskribatu zuen Espainia, jarduera mota horiei zegokienez. Herrialdea porrotean dago, baina batzuk –berriro ere familia gutxi batzuk, sarritan mandatar frankisten ondorengoak– inoiz baino aberatsagoak dira. Eta ekonomialari entzutetsu batek dioen bezala, «beren gozamerako dute Estatua».

Katalanek, bien bitartean, historiako krisirik hondagarriari egin behar diote aurre. Batez ere, Kataluniako Gobernuak dirurik gabe geratzen ari delako, harrapaketa fiskalarengatik ez ezik leialtasun instituzional ezagatik. Europak espainiar defizita arintzeko konpromisoa hartzen duenean, Espainiako Gobernuak figura berri hori bere onurarako erabiltzen du eta autonomia erkidegoei eta udalei gizarte zerbitzuak gehiago murriztea eskatzen die; bitartean, Espainiako Gobernuak marjina gehigarri osoa beretzat hartzen du eta inori axola

ez zaizkion egitasmoetan xahutzen du. Etxez etxeko gizarte laguntza ezarri zenean, Espainiako Gobernuak gastatutako euro bakoitzeko 50 zentimo ordaintzeko konpromisoa hartu zuen eta autonomia erkidegoei utzi zien kudeaketa. Gaur egun, euroko hamar zentimo baino gutxiago ordaintzen ditu, eta autonomia erkidegoek, kudeaketak behartuta, Madrildik iristen ez den diru premiari erantzun behar diote. Espainiako Gobernuak krisiari aurre egiterakoan erakutsitako arduragabekeria azaleratzen duten bi adibide besterik ez dira horiek.

Eta gobernatzeko era hori zuzentzeak, hainbeste bidegabekeria zuzentzeak, independentziaren aldeko mugimenduaren xede nagusietako bat izan behar du ezinbestean. Herritarrek ulertu dute dagoeneko ez direla ari soilik bandera bat aldatzen. Gehiengoak ulertu du guda hau guk pentsatzen genuen bezala bukatu ez zen erregimen baten aurkako azken guda dela. Independentista katalan gehienek badakite hainbat jenderen ahaleginen jarraitzaileak direla: 1940an Gestapok Frantzia atxilotu eta Francok Montjuïc-en exekutaturako Companys presidentearenak, kasu. Ziur naiz irakurleak, orain arte irakurritako guztiaren ondoren, erraz ulertuko duela edozein zeinutako espainiar gobernuek zergatik ez duten sekula onartu Companysen heriotza-zigorra sinbolikoki kommutatzea eta bere irudia birgaitzea, nahiz eta alderdi katalan guztiak eskatu duten. Companys, oraindik ere, gaizkile bat da erregistro ofizialetan, herritarrek Errepublika garaian Kataluniako presidente izateko hautatu zuten arren. Eta zein da jokamolde harrigarri hori arrazoitzen duen argudioa? Sinietsi ala ez, erantzun ofiziala hauxe da: presidente katalana hiltzea «legearekin ados zetorren». Eta birgaitu ezin baldin bada, oraindik ere hala datorrela ulertu behar dugu. Horixe da Espainia. 2014ko Europan. 🇪🇺

[Erredakzioan euskaratua]

# Funtsezko agiriak independentziarako bidean

Kataluniako prozesu politiko subiranista hobeto ulertzen lagundu dezaketen hainbat agiri esanguratsu aipatzen dira jarraian. Jakinen webguneko *Gogoeta* atalean aurki daitezke pdf formatuan.

## **Assemblea Nacional Catalana (ANC)**

**Declaració de la Conferència Nacional per l'Estat propi**  
2011-04-30 • 3 orrialde

Assemblea Nacional Catalana (ANC) erakundearen sortze-agiria da. Estatu katalana helburu, ANC «és una organització de base transversal i unitària que té com a objectiu la independència de la nació catalana per mitjans democràtics i pacífics». Independentziari buruzko galdeketen mugimenduaren ildotik abiatu zen 2011ko apirilaren 30ean, Bartzelonako Palau Sant Jordi-n egindako biltzar nazionallean.

## **Institut d'Estudis Autònoms (Kataluniako Gobernuari atxikia)**

**Informe sobre els procediments legals a través dels quals els ciutadans i les ciutadanes de Catalunya poden ser consultats sobre llur futur polític col·lectiu**  
2013-03-11 • 59 orrialde

Institut d'Estudis Autònoms organoa 1984an eratu zen. Gobernazio eta Harreman Instituzionalen Sailari atxikia, botrearen lurralde antolakuntzari, Kataluniaren autogobernuaren garapenari eta mundu osoan autogobernuaren eta deszentralizazio politikoaren esparruan sortzen diren berrikuntza nagusiei buruzko ikerketak lantzen ditu. Txosten honetan, Kataluniaren etorkizun politikoari buruzko legezko galdeketarako Espainiako Konstituzioarekin bat datozen bost prozedura aurkezten dira.

## **Kataluniako Legebiltzarra**

**Resolució 17/X del Parlament de Catalunya, sobre la iniciació d'un diàleg amb el Govern de l'Estat per a fer possible la celebració d'una consulta sobre el futur de Catalunya**  
2013-03-13 • orrialde bat

Kataluniako Legebiltzarrak, ebazpen honen bidez, Kataluniako Gobernuari hauxe eskatzen dio: Kataluniako herritarrek beren etorkizuna erabaki ahal izateko galdeketa bat antolatzeko asmoz, ekin diezaiola Espainiako Estatuko Gobernuarekin elkarrizketa prozesua abian jartzeari.

**Resolució 479/X del Parlament de Catalunya, per la qual s'acorda de presentar a la Mesa del Congrés dels Diputats la Proposició de llei orgànica de delegació a la Generalitat de Catalunya de la competència per a autoritzar, convocar i celebrar un referèndum sobre el futur polític de Catalunya**  
2014-01-16 • 5 orrialde

Kataluniako Legebiltzarrak, ebazpen honen bidez, Espainiako Legebiltzarrean Kataluniako Gobernuari Kataluniaren etorkizun politikoari buruz erreferendum bat antolatzeko eskumena onartzea xedatuko lukeen lege organiko bat proposatzea erabakitzen du.

## **Consell Assessor per a la Transició Nacional (Kataluniako Gobernuari atxikia)**

Consell Assessor per a la Transició Nacional organoa 2013ko apirilaren 11n eratu zen, honako xedeekin: trantsizio nazionalaren prozesua eratzeko alternatiba juridikoak aztertzea, etorkizuneko gobernu eta erakunde katalanen funtzionamenduari buruz aholkatzea, trantsizio nazionalaren prozesua nazioartean hedatu eta babesa bilatzea, prozesua bermatzeko Kataluniako erlazio instituzionalak zedarritzea. Sei txosten aurkeztu dituzte dagoeneko:

**1. La consulta sobre el futur polític de Catalunya**  
2013-07-25 • 221 orrialde

Kataluniaren etorkizun politikoari buruzko galdeketa inguruko gogoeta egiten da: galdeketa aldeko argudio legitimatzaileak,

legezko galdeketa bat antolatzeko estrategia juridikoak, emaitzaren ondorio juridikoak, legezko galdeketa ezin egin izanez gero planteatu daitezkeen bide alternatiboak...

## **2. L'Administració tributària de Catalunya**

2013-12-20 • 155 orrialde

Katalanek ordaindutako zergak kudeatzeko gai izango litzatekeen berrezko zerga administrazio bat eratzeko Kataluniako Gobernuak jarraitu ahal izango lituzkeen estrategiak aztertzen dira.

## **3. Les relacions de cooperació entre Catalunya i l'Estat espanyol**

2013-12-20 • 52 orrialde

Kataluniaren eta Espainiako Estatuaren arteko etorkizuneko lankidetzaren formulak aztertzen dira, egungo inguruabar politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak ezartzen dituzten eskakizunen testuinguruan. Txostena uste sendo batetik abiatzen da: prozesuaren garapena batera ala bestera izan, behin hura amaituta, bi estatuaren arteko lankidetzaren erlazioen esparru bat taxutu beharko da ezinbestean.

## **4. Internacionalització de la consulta i del procés d'autodeterminació de Catalunya**

2013-12-20 • 40 orrialde

Kataluniako herritar eta erakunde politikoek abiatutako galdeketa eta autodeterminazio prozesuaren nazioartratzea lantzen da, bi xedekin: batetik, prozesua nazioarteko eragileen aurrean justifikatzea (estatuak, nazioarteko erakunde eta antolakundeak, eragile ez estatalak eta atzerriko hedabideak); eta, bestetik, komunikazio politika bat prestatzea, kanpoko eragile horiei Kataluniako prozesu politikoa azaltzeko eta Kataluniaren independentziaren nazioarteko onarpenera lantzen hasteko.

## **5. Les tecnologies de la informació i de la comunicació a Catalunya**

2013-12-20 • 78 orrialde

Bi helburu ditu txosten honek: alde batetik, komunikazio elektronikoen segurtasunaren inguruko arriskuak eta Kataluniako Gobernuak horiei aurre egiteko neurri eta estrategiak aztertzea; beste aldetik, informazio eta komunikazio teknologien alorrean egun Espainiako Estatuak duen titulartasuna edo kudeaketa bereganatzeko neurriak planteatzea.

## **6. Les vies d'integració de Catalunya a la Unió Europea**

2014-04-14 • 72 orrialde

Lehenik, Kataluniako Estatua Europar Batasunaren barnean edo kanpoan geratuko litzatekeen aztertzen da, eta, kanpoan geratzekotan, berriro sartzeko zein bide leudekeen. Ondoren, agertoki hipotetiko horietan aurreikus daitezkeen ondorio praktikoak analizatzen dira.

## **Pacte Nacional pel Dret a Decidir**

### **Manifest Pacte Nacional pel Dret a Decidir**

2013-09-16 • 3 orrialde

Erabakitze eskubidearen aldeko itun nazionalak, manifestu honen bidez, bat egiten du Kataluniako Legebiltzarrak eskubide horren alde onartutako ebazpenarekin. Itun horren sinatzaileen artean daude Kataluniako Gobernua, alderdi politikoak, eta udal, kultura, hezkuntza, komunikazio, gizarte, kirol, lan eta enpresa alorreko ehunka erakunde eta elkarte, publiko eta pribatu.

## **Kataluniako Gobernua**

### **Presidentearen gutuna nazioarteko komunitateari**

2013-12-20 • orrialde bat

### **Memorandum #2. Date & Question Announced for Catalonia Self-Determination Vote**

2013-12-13 • 2 orrialde

Artur Mas Kataluniako Gobernuako presidentek gutun eta memorandum bana bidali zien nazioarteko hainbat agintariri, Kataluniaren erabakitze eskubidea defendatuz, prozesu subiranistaren berri emanez eta erreferendumaren xehetasunak argituz. Gutuna Europar Batasuneko liderrei (eransten dugun gutuna Angela Merkeli bidalitakoa da, hain zuzen) eta José Manuel Durão Barroso Europar Batzordeko presidenteari igorri zien. Memorandumak, aldiz, Europar Batasuneko 27 lehen ministroei eta mundu osoko beste 45i.





## EGUNEN GURPILEAN

### **93** Kultura

Non hasten da Iparraldea?  
Mugak  
Euskal Herria Zuzenean festibala  
Zuberoa  
Manexen herrialdea  
Nagore Amondarain

### **101** Ekonomia

Etxegintzaren ajeak  
Kutxabanken Pandorarena  
Global Forum Spain  
Joseba Barandiaran

### **107** Soziolinguistika

Mugarriak  
Motibazioa  
Kanpoko nahiz barruko gakoak  
Erdiguneak eta geruzak  
Diskurtsoak  
Sintesia  
Dabid Anaut

### **114** Telepolis

Europako lehen bizikleta sistema  
publiko %100 elektrikoa Donostian  
Zergak gora eta behera  
Windows XPri agur  
Gorka Julio



### Non hasten da Iparraldea?

Ez da hego edo iparririk nondik gabe. Eta nondik beti da zergatik.

Horixe dio Xabier Erkizia eta Maialen Lujanbiok atonduriko *Txori mugariak* ikuskizunak. Zuberoan hasi ziren egi-tasmorako soinuak eta edukiak biltzen eta Maulera bueltatu zuten ikuskizuna martxoaren lehenean.

Badirudi ez garela sekula aspertzen hemisferioak zalantzan jartze horrekin. Gainera, hemisferioak desplazatu dire-la esaten diguten sasoian. Azkenaldiko lurrikarek lurraren ardatza mugitzea ekarri omen dute, eta horrek ipar zein hego hemisferioak ere zalantzan jartzea ekar lezake.

Euskal Herrian lurraldeen arteko zubiak eraikitzeaz hitz egiten da, hemendik harako eta handik honako bideak gehiago zabaltzeko beharraz. Baina horrelako lurrikara bat behar genuke Iparraldeko kultur sorkuntzaz gehiago jakiteko. Ikas-terko eta bide batez horiekin gehiago gozatzeko, eta aldrebes.

«Nondik» beti denez zergatik, galdera asko sortzen zaizkio bati, Sarako Usopop festibalean, Mursego bezalako musikari polifonikoa entzutean lehen lerroko haurrei frantsesez berbetan. Edo amaierako agurretan «eskerrik asko honaino etortzeagatik Hegoaldeko lagunei» bezalako eskertzeak egin zituenean, kontzertu bukaeran. Adibidez, Donostian bizi den bati errazago zaiolako Sarara joatea Bilbora joatea baino, eta zer esanik ez, merkeago. Paris baino iparralderago egotearen sentsazioak sortzen zituen era horretako komentarioak entzuteak.

Frantses ikuspuntutik, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa, kulturari dagokionean, ondarearen terminoetan ko-

katzen dira. Irekidura eskaseko lurraldeaz ari dira frantsesak. Baina hemisferioak kolokan jartze hori aspaldikoa da. Begira bestela: Uruguaiako Joaquín Torres García artistak *América invertida* koadro ezaguna margotu zuen 1943an, beraien iparra Hegoa dela aldarrikatzen zuena. Hala ere, munduan iparra eta hegoa, eta zein zeinen ugazaba, apopilo, ikasle, irakasle den korrelazioak modu ezberdinean erreproduzitu dira historian.

Munduko ekonomia handiak Hegoaldea husten du Iparraldea aberasteko. Kultura txikiak, gureak, Iparraldea behar du, husten ari den Iparraldea, Hegoaldea aberasteko (Maialen Lujanbio eta Xabier Erkizia, *Txori mugariak*).

Ia maila berean, Hegoaldean ere, beraren iparra hegoaldeak izan behar duelako ustea, zuzenean esan ez arren, konturatu barik errepikatzen den *mantra* bat izan daiteke. Segi dezatela kantuan eta dantzaz, trebeak baitira horretan, horixe da agian askok espero dutena Iparraldea deitzen dugun lurralde horretatik. Segi dezatela horretan, gorde dezatela gure tradizioa garai zaharretan legez, transmititu dezatela belaunaldiz belaunaldi, gero guk bertatik ikas ditzagun «pika eta ebats» pausoak, eta gu izan gaitezen hori berrituko duen hegoalde modernoa. Iparralde folkloriko bat behar dugu, beraz, gu moderno agertzeko, gure abangoardia justifikatzeko. Eta, agian, ez gara ohartzen berritasunean asko izan dezakegula ikasteko Iparraldetik ere.

## Mugak

XVII. mendean ezarri zen muga. Estatuak ezarri zituzten muga politikoak, eta gure arteko banaketa ekarri zuen horrek. Horrez gain, lehen eta bigarren mundu gerrek eta Aljeriako gerrak frantses kontzientzia azkartu baino ez zuten egin, muga amildegi bihurtzeraino. Banaketa horrek tolesdura asko izan ditu, beraz, akordeoi baten gisan irekiz eta

itxiz joan direnak. Beste garai batean Iparraldera gerturazten ginen modernotasun bila, Europarekiko haize berrien bila, Euskal Kantagintza Modernoaren aitzindaritz handik zetorren... Egun, adibidez, inoizko mugarik hotzena bizidugula esan daiteke. Mundu anglosaxoiaz berri gehiagodugu (edo okerrago dena, Ebrotik beherakoagoaz) Estatu frantsesean gertatzen denaz baino. Europaren garaian muga administratiboek gero eta garrantzi txikiagoa beharko luke tenean (90eko hamarkadan merkatu bakarra, hurrengo hamarkadan txanpon bakarra) gurean handitu baino ez dira egin mugok, baita mugakoak diren herrietan ere.

XIX. mendean abertzaletasunaren aitzindari izan zen Agosti Xaho zuberotar ahaztua mugen paradoxetan sar dezakegu; *Zazpi Uscal-Herrietako Uskualduner* izeneko gramatika eskaini nahi izan zion herri honi, eta aldi berean Gasteizera erbesteratua izan zen.

Nortasun kolektibo bat eraikitzeko bidean jarri nahi badugu, elkartze bat nahi badugu, elkar ezagutzatik hasi beharko dugu.

## Euskal Herria Zuzenean festibala

Duela hemeretzi urte Euskal Herria Zuzenean izan genuen Euskal Herriko lehen rock festibala, egungo dimentsioetan ulertzen den gisako festibala, diot. Eta ez soilik Euskal Herrian, European ere gutxi ziren molde horretako festibalak orduan. Nazioarteko musika taldeek eta bertakoek batera osatzen dute programazioa, eta marketatik kanpo antolatzen den festibal bat izaten jarraitzen du egun. Promotore baten eskuetan utzi beharrean, auzolanean eta elkarlanean bizirauten duen festibala da EHZ.

Gaur egun, herri oso bat harilkatzea du helburu festibal honek. Hasiera batean Iparraldeko barnealdeko eta kostaldeko gazteen arteko harremanak sustatzea bazuen xede, egun, Iparraldea eta Hegoaldea ere batu nahi dituzte. Nafa-

rroa Beherean izan zuen sorrera, Zuberoatik ere igaro zen, eta Lapurdin izango dugu hemendik aurrera. Guda bihurtzen zaigun muga horrez gaindi mugitzen ari den festibal interesgarri bat.

Behar izaten dituzten zazpiehun boluntarioetatik, Hegoaldeko euskara elkarte batzuei aitortu behar zaie zubi-lanean egin duten lana, edo azken urteetan baita gazte mugimenduei ere.

«Herri hunek ditu: muga bat erdian, sei uniforme... normala ote? Hiru hizkuntza, baita gehiago ere, aberastu gaitezen pobretu gabe», zioen 2013ko ediziorako Willis Drummond taldeak sorturiko abestiak. Hegoaldeko kontzertuetan falta beharko ez zen abestia. Willis Drummondekoak izan daitezke azkenaldiko txori mugari adierazgarrienak, Hegoaldeko eszenan sartu direnak, muga guztien gainetik. Aipatu beharra dago Drummondarren lurreratzea Gasteizen izan zela 2007an, Hala Bedi irratiaaren gonbidapenari esker. Paradoxikoa den arren, Hegoaldeko epizentroaren periferian, askorentzat. Eta handik zabaldu da Hegoalde guztira dagoeneko *mainstream* bilakatu den taldea.

## Zuberoa

Batzuek hogeita hamazortzi urte behar izan dituzte Zuberoa ezagutzeko. Euren bizitzetan Alemanian edo Madrilen denbora luzeko egonaldiak egin ostean etor daiteke Zuberoa ezagutzeko aukera, maskaraden aitzakian. Agian ez daki ezer Xamarren *Orhipean* liburuari buruz, badenik ere ez du jakingo horrelako libururik, lana erraztuko liokeen arren orrialde pareira irakurtzeak, maskaradak zer diren ezagutzeko. Berdin dio... Goizeko barrikaden bukaeran hartutako ardo goxoak bere amonak, txikitan, ematen zion ardo goxoarekin oroitze-ko balio izan badio, bada zerbait Zuberoako lurreratzean.

Baina Zuberoa ez da beti kantu eta dantza. *Xora* bezalako proposamen ausartak –Zuberoan auzolanean egindako

filmak– hurbildu gintuen Hebertik elkartera. Tradizioaren eta arte garaikidearen arteko nahaste bat Euskal Herriko gainerako herrialdeekin partekatzeke saioetan dabilta, duela hamar urtetik hona. Maulen dute gunea, tren geltoki zaharreko egoitzan dago beraien bulegoa; erakusketa, ikastaro zein ikuskizunak ere bertan antolatzen dira.

Hebertik elkarteren barruan kokatzen dugu Gotaine-Ira-barnen urtero egiten den Xiru festibala. Musika, antzerkia eta dantza diziplinak uztartzen ditu eta euskal kultura beste kulturekin eta diziplina askotariko arteekin harremanetan jartzeko asmoz antolatzen dute. Tradizioaren erakusleho bihurtzen ditugun dantza eta kantua baino harago joatearen eredu da Hebertiken lana eta kasu zehatz honetan Xiruren asmoa; bertako sorkuntzek tokiko osagaiak biltzen dituzten moduan, sorkuntza horiek beren baitan duten unibertsaltasuna ere eskaintzea edo azaltzea baitu xede. Eta festibal hau ez da atzo goizekoa, hau da, ez da aro modernoak ekarri ditudun berri behararen sukarrean jaio, 1990etik antolatzen baitute. Urdiñarben antolatzen den Musikaren Egünak ere, beste adibide bat aipatzearen, hogeita bost urte ditu dagoneko. Iparraldean gaztetatik uztartzen dituzte, naturalitate osoz, tradizioa eta modernitatea. Herri kulturaren osagaiei lepoa eman ordez, jaso, birmoldatu eta herriari itzultzeko duten abilezia handia da.

## Manexen herrialdea

Lapurdi eta Nafarroa Beherea, horixe litzateke Manexen herrialdea zuberotarrentzat, Zuberoa ez den gainontzeko Iparraldeko herrialdeak, alegia. Manexen herrialdean, aurretik aipaturiko Usopop festibala bezalako proposamen duinak egiten dira. Bi mila eta bostehun biztanleko Sara herrian egiten den festibala dugu hori. Bada tradizio luzeagoa duen beste jaialdirik: Miarritzen adibidez, Bi Harriz Lau Xori jaialdia. Folkloretik eta topikoetatik ihesi, gazteak prota-

gonista dituen kultur ekimenak ezagutarazteko asmoarekin antolatzen da duela hemeretzi urtetik hona. Zinema, kontzertuak, zirkua, antzerkia eta dantza biltzen dituen jaialdia da. Baionatik Stéphane Garinek eta Joël Merahek osatzen duten 0 (zero ahoskatu) kolektiboa izan da aurtengo edizioan, baita *Biutz* zirku-antzerki ikuskizuna ere Donostia-Oreretako kideen eskutik. Iparralde, Hegoalde zein atzerriko artistek hartzen dute parte jaialdian.

Berrehun eta laurogeita hamar mila biztanle biltzen diren Ipar Euskal Herrian (Arabako biztanleria baino apur bat gutxiago) luze jarrai genezake egiten diren jaialdi guztiak aipatzen:

- Euskal Herriko zine eta dokumental ekoizpena aurkezteko, Hazparneko Zinegin festibala.
- Libertimendu eta Toberak, Amikuze, Irisarri, Itsasu eta Donibane Garazin.
- Euskal Bide Arteak euskal kulturaren inguruko festibala, Bidarten.
- Hartzaro festibala Uztaritzen.
- Errobiko Festibala Itsasun. Azken bi horiek hemezortzi urteko ibilbidea dute.

Festibalak edo topaketak direnez, ez dira batean eta bestean erreproduzitu eta errepikatzeko sortuak, euren kokagunea dute. Aipaturikoetan Hegoaldeko jendea entzule, ikusle edo kontsumitzaile soil izatea abiatze baten lehen urratsa litzateke. Ikuskizun hutsa izan daiteke, baina konpromiso sozial eta politiko batez egituratuz gero, sortzailen arteko fluxuak bideratu ditzake.

Bestetik, festibaletatik harago, artista eta kultur eragile asko daude, arte bisualekoak, dantzakoak, antzerkikoak, musika eta kantagintzakoak... Sortzen duten hori Ipar zein Hego eskaintzeko prestutasuna izan dezaketenak: Traversée dantza garaikideko elkarteak –Beñat Axiariren abestiekin atonduriko *Hiru zitroin lur hotzean* ikuskizunarekin– edo Elirale koreografia konpainia, adibide moduan. Antzerkian ere aintza da sorkuntza, Le Petit Théâtre de Pain, Hiru Puntu, Ki-

tzikazank/n Mattin Irigoienen eskutik edo Donibane Garaziko lizeo publikoko euskal antzerki tailerra Antton Lukuren eskutik. Kultur sorkuntzan, mugaz gaindiko elkar ukitze eta kontaktuez hitz egitean, merezi duten sona izaten ari dira adibidez Artedrama Laborategikoak, arte eszenikoen plataforma eredugarria sortu baitute, nortasun kolektibo bat. Beraz, non hasten da Iparraldea?

Kukai, OrekaTX, Amaren Alabak eta Kalakan elkartu diren ikuskizunak ere eredugarri izan daitezke zubi lan horretan, txori mugariak horiek ere. Edo hainbesteko sona izan ez duten kontaktuak, hip hop musikaren itzalean: nire harridurarako, 2006ko otsailean Ziburun M.A.K. taldeak Gas-teizko Indarrap taldeko Fat Fish gonbidatu moduan ohol-tzara igo zuenean bezala. Koordenatu berdinetan ote dugu kokatua Bidasoako muga, beraz?

Arrosan kokatua baina Internet bidez zabaltzen den Kanauldude herri telebistaren *Zazpi* kultur emanaldiak Euskal Herriko kultur dinamiken ikuspegi zabala ematen digu; bideo, arte plastiko, musika, literatura, antzerkia..., sorkuntza mota guztiei zabalik dago mugaz haraindi. Herria ulertzen, birsortzen eta eraldatzen laguntzen duen ekimen multzo horrek erreproduzio ideologiko eta sozialeko funtzioekin ere badihardu lanean.

Eta beste kulturetan moduan, sorkuntza indibidual zein kolektibo horien jarduera multzoa kapital sinboliko aberatsa izateaz gain, praxi beregainen kapital zehatza da sarritan, horiek guztiak zaindu, antolatu, lagundu eta ezagutarazi beharko lituzkete politika publiko zein kapital pribatuek, mugaz gaindiko gure lur-eremura sarrera emanaz. Ekoizpen lotu eta elkartu bat behar dugu. Beste herriek bezainbesteko transnacionalizazioa bizi dugu, baina, horrez gain, gureari barruko banaketa gehitu behar zaio. Argi geratu delakoan, inolaz ere ez ikuspegi folklorista batetik, hau da, balio eta eduki unibertsalez hustua.

Ipar Euskal Herriko hauteskundearen kariatara, *Berria* egunkarian irakurri ahal izan dut *zuzendariari gutunak* atalean,



Aitor Castañedaren honakoa. «Euskal Herria bi ipur-masail handiren arteko putza baino ez da frantsesentzat». Berdin Espainiarentzat, pentsatuko dugu Hegoaldekoak. Poztuko nintzateke Ipar edo Hego gabeko habia bakar eta bero bat izatearekin, nortasun kultural kolektibo bat izatearekin, besteentzat putza izan arren. Gutxienez iparraldea Tarnosen kokatuko genuke denok, aho batez. 🍷



## Ekonomia

Joseba Barandiaran

### Etxegintzaren ajeak

Higiezinaren burbuila oso fenomeno espainiarra dela, ez ordea gurea, pentsatzeko tentazioa izan dezakegu. Mediterraneoko kontuak. Eustatek eta Nafarroako estatistika institutuen datuetan aztarrika ibilita, ordea, zer pentsa ematen duten datuak topa daitezke.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1991-2006 artean, populazioak %1,3 baino ez zuen gora egin eta 2,1 milioi lagun buekta gelditu zen. Herrialdeka, ezberdintasun aipagarriak izan ziren: Arabak %11,5eko populazio hazkunde izan zuen (31 mila lagun gehiago), Gipuzkoak %1,6koa (+11 mila) eta herrialde populatuena, Bizkaiak, %1,4ko populazio galera pairatu zuen: 1,1 milioi lagun (16 mila lagun gutxiago).

Epe berean, zer gertatu zen etxebizitza kopuruarekin? Bada, %26,7 hazi zela. Hamabost urteren buruan, 207 mila etxebizitza gehiago zeuden EAEn, horietatik erdiak (102 mila) 2001-2005 epean eraikiak. Hortaz, etxebizitzako 2,72 lagun izatetik, 2,17 izatera pasa zen EAE. Izan ere, populazioa irabazten ari zen Araban %38 emendatu zen etxebizitza kopurua, %31 handitu ziren etxebizitzak populazioa apenas gehitu zuen Gipuzkoan eta %21,3 gehitu ziren etxebizitzak populazio gutxiago zuten Bizkaian.

Azalpenetan arrazoitu dezakegu «baby boom» belaunaldiak emantzipatzerako jo zuela, errenta gehikuntzak bigarren etxebizitzaren fenomenoaren orokortu zuela edota bikote bakanetarako nahiz demografiaren jaitsierak lagun gutxiagoko familiak gehitu dituztela. Baina, ororen buru, esango nuke Espainian ere gertatu den etxebizitzaren garestitze eta espe-

kulazioaren sorgin gurpila izan dela, interes tasa baxuak eta zorpetzeko muga eskasak lagun.

Nafarroan itxura orekatuagoa du kontuak: 2001-2011 epealdian %15eko populazio hazkundera %19ko etxebizitza kopuru gehikuntzarekin batera. Etxebizitzako 2,14 nafar izatetik, 2,07 izatera.

Hortaz, Mediterraneo aldean gertatuak gertatu, esan liteke gurean ere mende hasieran egon zela higiezinaren merkatuaren putze gehiegizko bat, etxebizitza hutsen gehitze nabarmenarekin batera. Eta horretan zerikusia izan zuten, noski, udalek, eraikitzaileek, erosleek, erosketa hobetsi duten politika fiskalek eta, nola ez, finantza erakundeek. Baita garai hartan aurrezki kutxak zirenek ere, %40ko merkatu kuota baitzuten gutxienera norbere herrialdean.

Inork aurrezki kutxak gehiegi idealizatzeko tentaziorik balu, derragun orduko BBK izan zela, barbarako, 2005ean 50 urterako hipoteka produktu berritzaile eta berdingabe gisa plaza-ratu zuena (ikus [http://cincodias.com/cincodias/2005/12/29/empresas/1135867210\\_850215.html](http://cincodias.com/cincodias/2005/12/29/empresas/1135867210_850215.html)), edota garaiko Gipuzkoa Donostiako Kutxa, besteak beste, Murtzian 220 milioiren sustapenetan sartua zena –horietako bat «Zerrichera» izen ponposo eta, agian, adierazgarria (ikus [http://elpais.com/diario/2007/03/25/paisvasco/1174855199\\_850215.html](http://elpais.com/diario/2007/03/25/paisvasco/1174855199_850215.html)).

## Kutxabanken Pandorarena

Espainiak finantza erreskatea eskatu zuenean (2012ko udan) eta troikarekin Memorandum of Understanding (MoU) delakoa sinatu, helburua argia zen: Espainiako finantza sistemaren kaudimena bermatzea, konfiantza eta mailegatzeko ahalmena berreskura zitzaizkan, behar besteko kapitalizazio baten bidez.

Une hartan, zalantzen iturburua Espainiako aurrezki kutxa batzuetan zegoen nagusiki (Bankia osatu zutenak, Gaztela-Mantxakoa, CAM, Novacaixagalicia..., helburu politi-

koekin erabili zirenak hainbat kasutan), inola ere ez Kutxa-banken, kaudimen handiena baitzuen urte hartantxe eratu-tako erakundeak. Bankarizazioak, hori bai, modu erraz eta azkarrean akzioak jaulki eta pribatizatua izateko «larrialdi atea» eskaintzen zuen, inoiz premiarik sortuta ere, lehengo aurrezki kutxek ez zutena.

Troikaren Memorandum of Understanding (MoU) testuak zera dio ([http://ec.europa.eu/economy\\_finance/eu\\_borrower/mou/2012-07-20-spain-mou\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/economy_finance/eu_borrower/mou/2012-07-20-spain-mou_en.pdf)), lehengo aurrezki kutxen eta euren kontrolpeko bankuen gobernu egitura indartu egingo dela. 2012ko azaro amaierarako Espainiako agintariak legedia prestatuko dutela aurrezki kutxek bankuen akziodun gisa izan behar duten rola argitu dadin eta, azkenean, gerora (*eventually*), euren partaidetzak txikitu ditzaten, kontrola bermatzen duen mailaz azpitik. Are gehiago, agintariak neurriak proposatuko dituzte aurrezki kutxen aginte batzordeen gaineko arauak indartu eta egokitzeko, bateraezintasunak ezarriz lehengo aurrezki kutxen eta euren kontrolpeko bankuen aginte batzordeen artean. Are, agintariak 2012ko azaro amaierarako marraztuko dute bide-orria estres frogan parte hartu duten bankuen burtsaratzeko, berregituraketa prozesuan estatu laguntzak jaso dituzten heinean.

Itzulpena gorabeheratsua izan den heinean, merezi du hitzez hitz hona ekartzeak:

The governance structure of former savings banks and of commercial banks controlled by them will be strengthened. The Spanish authorities will prepare by end-November 2012 legislation clarifying the role of savings banks in their capacity as shareholders of credit institutions with a view to eventually reducing their stakes to non-controlling levels. Furthermore, authorities will propose measures to strengthen fit and proper rules for the governing bodies of savings banks and to introduce incompatibility requirements regarding the governing bodies of the former savings banks and the commercial banks controlled by them. Moreover, authorities will provide by end-November 2012 a roadmap for the eventual listing of banks included in the Stress Test, which have benefited from State aid as part of the restructuring process.

Troikak ez du aurrezki kutxa edo banku baten pribatizaziorik behartzen, estatu laguntzarik jaso ez badu behintzat. Baina estatuak bide orri bat zehaztu beharko du, momenturen batean, aurrezki kutxek bankuetan duten partaidetza jaits dadin kontrola bermatzen ez duen maila batera. Une horretan, noski, Kutxabank ez dago troikaren buruan. Ez da kezka iturri bat, ongi kudeatutako banku bihurtua baita jada.

Hurrengo urtean, 26/2013 legea argitaratu zuen Espainiako Aldizkari Ofizialak ([www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2013-13723](http://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2013-13723)). Eta hor zer azaltzen da? Bi atal ditu, lehena aurrezki kutxentzat eta bigarren bat banku fundazioentzat.

Zer den aurrezki kutxa bat? Finantza jarduna elkarte autonomo batera –edo mugakide diren hamar probintziataratara– mugatua duen finantza bitartekaria. Aurrezki kutxa izaten jarraitzeko moldaketak egin behar baditu, sei hilabeteko epea ematen dio legeak (aurtengo ekaina bitartekoa, gutxi asko). Cajasur eta bere hedapen sarea direla medio, Kutxabankek ez luke hor tokirik izango. Edo moldaketa azkar bat egin behar luke, egungo kudeatzaileen buruan inondik ere ez dagoena.

Eta bigarren atala: banku baten %10eko partaidetza gaintitzen badu, edozein fundaziok «banku fundazio» bihurtu behar du. Eta horrek banku baten partaidetza %50etik gorakoa badu, erreserba funts bat prestatu beharko du balizko larrialdietarako (dirutza metatu, zer gerta ere); ulergaitza, berehalakoan burtsaratu daitekeen elkarte anonimo batez ari garelarik. Edota, funts hori eratu nahi ez badu, bost urteko epean bankuan duen partaidetza %30 azpitik kokatzeko desinbertsio plan bat aurkeztu behar dio Espainiako Bankuari.

Eta horretan datza orain euskal politikan hainbeste haizatzten den Kutxabanken pribatizazioaren auzia. A priori, Vital, BBK eta Kutxa 43. artikulua lotuko lituzke, hala baitio:

Las fundaciones bancarias que posean una participación igual o superior al 30% del capital de una entidad de crédito o que les permita el control de la misma por aplicar cualquiera de los criterios del artículo 42 del Código de Comercio elaborarán, de forma individual o conjunta, un protocolo de gestión de la participación financiera...

Demagun kutxa bakoitzak proportzionalki murrizten duela bere partaidetza, gehienez Kutxabanken %29na izateraino (Vital dagoeneko egoera horretan dago). BBK nahiz Kutxak norbere buru, batzar, araudi eta independentzia gordetzen duten heinean, defendagarria dirudi. Eta Kutxabanken kapitalaren gainontzeko zatiak banatzen dizkietela, hurrenez hurren, erakunde sortzaile diren aldundi edo udalei, Eusko Jaurlaritzari, Eudeli edo dena delakoari. Hirugarren akzio-dunak, baina ez halabeharrez inbertsiogile pribatuak.

Legea beteko litzateke? Formalki, badirudi baietz. Kutxabanken pribatizazioa lekarke? Oraingoz ez. Kutxabanken profesionalizazioa edo independentzia murriztuko luke? Nekez, lehengo antzera geldituko litzateke egoera (dezente-ko profesionalizazioa eta dezenteko independentzia), nahiz eta jatorrizko kutxek, gizarte ekintza zuzenean elikatzen dutenek, euren partaidetza murriztu beharko luketen. Kezka gutxi, dena den, dibidenduen jasotzaileak erakunde publikoak diren heinean.

Euskal finantza sisteman erakunde nagusia denarekin zer gertatuko den hurrengo pare bat urtean definituko da. Pandoraren kutxa zabalik da. Nolanahi den, partaidetza industrialak zamaten dituen Basileako araudia hor dago eta, pribatizatu zein ez, kutxen gaineko eragin politikoa nahiko lausotua mantenduko da aurrera ere. Errotzearen garrantzia amiñi bat gutxietsi gabe, finantza erakundeekin politika publikoak bideratzeko aukerak garai batean baino estuagoak dira.

Eta aurten izan daiteke mailegu kooperatiben gaineko lege berriren bat, Mondragonen Laboral Kutxari eta Nafarroako Rural Kutxari eragin diezaikeena.

## Global Forum Spain

Martxo hasieran eta kaleko istilu artean, Bilbon ospatu zen Global Forum Spain, Espainiako Industria Ministerioak antolatutako goi-bilera. Bertan izan ziren Espainiako

erregea, NDFren buru Lagarde, Europar Komisioaren presidenteorde Almunia, Eurotaldeko buru Dijsselbloem edota OCDEko buru Gurria. Munduko agintaritzak ekonomikoan hautaketa demokratikoak pisu handirik ez duela baieztatze-ko moduko zerrenda, duda barik.

Dijsselbloemek egindako hitzalditik, orain arteko erreformen bidea goretsi eta are azkartzeko asmoa azpimarra daiteke produktibitatea eta hazkundea emendatzea helburu (<http://eurozone.europa.eu/media/517918/20140303-speech-jd-bilbao.pdf>):

Guztiok dugu altxortzat Europako eredu soziala, ongizate estatu eta sistema kolektibo indartsuak dituenak. Urtetako lana izan dugu berori eraikitzen, eta garai zailtarako babes sarea eskaintzen du. Jende askok kezka du orain, ongizate estatua desegiten ari ote garen. Neure irudiko, gure ekonomiak modernizatuz baizik ezingo dugu gure eredu soziala finantzatzen jarraitu, datozen urteetan ere antzeko ongizate maila bermatu ahal izateko. Horixe da etorkizun hurbileko gako nagusia.

Baina gizartearen neke sintomen adierazgarri, unibertsi-tatetik sustatutako adierazpen publikorik ere izan zen, bes-telako helburu batzuen garrantzia ere azpimarratuz ([www.pertsonenekonomia.info](http://www.pertsonenekonomia.info)).

1. Ekitateak bizitza ekonomikoa antolatzeke ezinbesteko erreferentzia behar du izan.
2. Lehiakortasuna ezin daiteke berezko azken helburu bilakatu, gizarte- eta ekologia-efizientzia alde batera utzirik.
3. Demokrazia eta gardentasuna ezinbestekoak dira ekonomia osasuntsu eta bideragarri batentzat.
4. Kontu publikoen orekatze handiagoa lortzeko metodoek eta erritmoek testuinguruaren arabera behar dute izan.

Izan ere, gauzak egiteko modu bakarra ez dago, eta, ekonomian, aukeraketak asko dauka politikotik. European, aldiz, erabakien hartzaileak eta demokrazia elkarrengandik urrun-txo sumatzen ditu, oro har, gizarteak. Datozen hamarkade-tarako Europaren erronka nagusia izan daiteke hori. 🇪🇺



## Mugarriak

Euskalgintzaz eta euskal soziolinguistikaz ari garela, liburu bat mugarri bat izanen ote den esatea ez da batere erraza. Inpaktu handi samarra sortu beharko luke halakotzat har genezan, baina ez soilik irakurleak txundituta eta gogoe-tan murgilduta utzi dituelako, baizik eta baita mugimendua sortu eta harako edo honako aldaketak eta urratsak eragin dituelako ere. Halakoxea izan zen, esate baterako, Sánchez Carriónen *Un futuro para nuestro pasado* hura, 1987an argitaratua. Proposamen teoriko sendo bat ekarri zuen, gogoak aztoratu zituen; baina hori baino askozaz ere garrantzitsua goa dena, mugimendua eragin zuen, eta horren emaitza dira, hein batean bederen, euskara elkarteak eta hortik sortu den mugimendua.

Jon Sarasuak Pamielarekin 2013ko udazkenean argitaratu zuen *Hiztunpolisa* liburuaz ere mugarri izanen dela esan da. Hori ere ikusteko, jakina. Hala izanen da, gure ustez, euskalgintzaren ikuspegian, diskurtsoan eta estrategian eragiten badu, erakundetzan ez bada erakundeetan mugimendua lortzen badu, eta aldaketa ekartzen badu ez bakarrik Jonen pentsamendurekin nahikoa konbentzitura daudenengan, baizik eta baita beren lana edo posizionamendua kolokan jarri dela sentitu dutenengan ere. Liburuak hasiera-hasieratik oihartzun zabala lortu du, eta han eta hemen aztergai izaten ari da. Euskaltasunaren norabideaz gogoeta sakona egiten du, astindu bat ematen dio auziari, eta baditu mugarri izateko osagaiak. Gogoak dantzan jartzeaz gainera, mugimendu «organikoak» eta urrats praktikoak eraginen ote dituen denborak erakutsiko digu.



Mugarri izanen den edo ez jakin gabe, une honetan euskararen estrategia birpentsatu eta adostu beharko balitz, eta gogoetarako oinarrizko 6-8 dokumentu edo txosten beharko bagenitu, nik *Hiztunpolisa* hautatuko nuke horietako bat izan zedin. Ez euskararen estrategia bertan diseinatuta dagoelako, ez baitago, baina bai galdera on eta egoki asko egingen dituelako, ideia zehatz batzuk ere badaudelako –hainbaten artean landutako kulturgintzarako estrategia, esate baterako–, eta liburuak duen epe luzeko edo arnas sakoneko ikuspegiak gogoeta estrategikoa bultzatzen duelako. Ezin da gogoetarako oinarri osoa izan *Hiztunpolisa*, baina bai ekarpen mamitsu eta interesgarria.

## Motibazioa

Euskararen erabilera eta ezagutza izan dira, agian, euskara biziberritzeko estrategien bi ardatz nagusiak, jarrerarekin batera eskema klasikoa osatzen zuten hiru horien artean. Bestea –jarrera, motibazioa, atxikimendua– gogoan izan da beti, baina lausoago gelditu zaigu ziur asko, eta euskaldunen eta erdaldun askoren aldeko jarrera orokor eta aitortu batek eskaintzen zuen nolabaiteko segurtasunarekin jokatu da sarritan, hori nolabait irabazita zegoelakoan.

Bistakoa da, ordea, motibazioak zulo asko izan ditzakeela, eta nahikotasun maila jakin bat ere behar duela, Txepetxek ongi aski adierazi zuen moduan. Presio handi samarra du euskaldunak berak, handik eta hemendik eragiten dioten indar asko, bere hizkuntza hautua egin behar duenean. Ezagutzaz gainera –ezagutzak ere egoera bakoitzean eta hiztunaren helburuen arabera nahikotasun maila jakin bat behar du–, behar besteko motibazioa behar du hiztunak. Horri ongi erreparatu dio Sarasuak bere lanean, eta motibazioen azterketarako eskema polita osatu: fluxu motibazioa (jaso duguna ematea), motibazio pragmatikoa, paradigmaren motibazioa (euskara izan liteke bestelako mundu baten pa-

radigmaren garraiatzailea), balio itsatsia (euskarak ez bes-tek emanen didana)... Eta beste maila batean akaso, hizkuntzaren bizkortasun espresiboa-eta.

Iruditzen zaigu ongi samar harrapatu eta deskribatu duela hor begien bistan daukagun baina aldi berean harrapatzen eta deskribatzen zaila den zerbait. Motibazioa ez da gauza fisikoa eta ebidentea, baina hizkuntzaren bizitzan ezinbesteko osagaia da, eta, beraz, guretzat ere ezinbestekoa da horren gakoak ulertzea. Jonen eskema interesgarria da, batez ere operatiboa izan daitekeelako, eta euskara suspertzeko lan praktikoan lagun diezagukeelako. Nondik tira erakuts diezaguke.

## Kanpoko nahiz barruko gakoak

Euskaltasunaren norabidean eta euskalgintzaren lanean bertan Euskal Herrian indar politikoen arteko lehia eta eragina oso handia dela bistakoa da, baita bi familia abertzale handien arteko aspaldiko lehiak euskalgintzan eragin duela ere. Liburuan argi eta askotan esaten da hori, eta egoeraren eta gertatutakoen irakurketan pisu handia hartu du, gehiegizkoa akaso. Euskalgintzak ere, euskaltzaleek, badituzte beste klabe batzuk, klabe propioak, eta onartuz gero, Jonek aipatzen duen moduan, ziur asko indar politikoen arteko lehiazko panorama hori ez dela epe motzean asko aldatuko, are garrantzitsuagoa da klabe propio horiek bilatzea eta lantzea, horietatik etor baitaiteke euskaltasunaren eta euskalgintzaren indartzea. Esaten ari garen hau erretorika hutsa izan ez dadin, euskaltasunaren eta euskalgintzaren barruko balizko gako horietako batzuk aipatuko ditugu, nahas-mahas bada ere:

Euskaltzaleen motibazio pertsonalak eta emozioen kudeaketa, gizartearen korrante nagusiekiko loturak, militantziaren kontzeptua eta militantzia ereduak, gure psikologia soziala, helburu posible gisa zer hautematen dugun, helburu estrategikoa adostu gabe edukitzea, erdaldunekiko

komunikazioa, ezagutza eta paradigma ekologikotik argudiatzeko gaitasuna, dedikazioa, ideologia linguistikoa, zuzenazetasuna eta zuzenkeria, hizkuntza normalizazioaren ikuspegi normatiboa eta hizkuntza komunitatearen ideia, eztabaida teoriko askoren zehaztasunik eza... Zerrenda luza liteke, jakina. Horiek guztiek badute, gure ustez, euskalgintzaren jardunean eragina, ez nolanhikoa, eta ez dira kokatzen indar politikoaren arteko lehia horren logika hutsean. Euskalgintza beregaina aldarrikatzen du Jonek, bat gatoz gu horrekin, baina beregainagoa izanen da, ustez, bere buruari gehiago begiratu eta alderdien lehia politikoaren –ez politikoaren– gorabeheri gutxiago begiratzuz gero. Hori guztia, bide batez esanda, euskarak eta politikak zerikusirik ez dutelako ustean erori gabe.

## Erdiguneak eta geruzak

*Hiztunpolisa* liburuaren azpтитuluak *Euskaltasunaren norabideaz apunteak* dio. Horretaz ari da, baina, akaso, euskaltasunaz baino gehiago, batez ere euskalgintzaz ari dela esanen nuke. Liburuan gehien erretratatzeko den jendea euskal munduaren zati bat da, mundu hori osatzen duten geruza guztien artean erdigunean dagoena, nolabait esateko eta Jonen irudiak erabilita. Euskaldun gehienak, ziur asko, ez dira deskribatutako erdigune horretan sartzen, baina berdin-berdin dira komunitatearen parte. Eta hor badugu paradoxa bat. Euskaltasunaren muin horren korranteak norabide batean tira egiten du, baina askotan inguruan dugun gizarteak beste norabide batean jotzen du, eta gizarte horri atzean doazkio komunitatearen erdigunean ez dauden geruza horiek edo geruza horien zati handi batzuk. Sokatira horretan soka hautsi ere egin liteke, eta geldi gintezke gure autentikotasunean eta originaltasunean bakar-bakarrik. Baina, bestalde, tira egiten ez badugu, euskararen zelofanaduen kultura guztiz arrotzarekin geldi gintezke. Gure baita-

ko begiradaren eta hizkuntza komunitate nagusiekiko homologazio hutsaren arteko tentsio horretan oreka puntu bat bilatu beharko dugu nonbait, barne hausturarik ez badugu nahi. Orekak, noski, ez du esan nahi juxtu-juxtu erdian gelditzea.

## Diskurtsoak

*Hiztunpolisa* liburuak ez dauka diskurtsoaren inguruko berriazko atalik, baina gai hori ere hor dago, itzalean bada ere. Mahai gainean egon da, nolana ere, azken aldiko beste hainbat gunetan –Kontseiluaren estrategiaren azterketan edo *Bat* soziolinguistika aldizkarian, esate baterako–, eta azken urteotako klasiko bat ere bada. Askok itxaropen handia jarria dute diskurtsoan eta komunikazioan, gure totema ere bihurtzeraino, baina horrek ere paradoxa dakarkigu, ezin izan zitekeen bestela.

Euskalgintzak diskurtsoa aldatu eta egokitu beharra duela entzuten da maiz. Diskurtso positiboagoa behar duela uler daiteke hori esaten den gehienetan, eta oso zentzuzkoa dirudi horrek. Euskara –Iñaki Martínez de Lunak azaldu du orain hurrena ideia hori *framing*-ari buruzko *Bat* aldizkari-ko artikulu batean– sarritan alderdi negatibo edo ilunekin lotua agertzen zaigu hedabideetan. Eta, egia dirudi horrek ere, euskararen inguruko berrien ezkortasunak, negarrak eta protestak euskararentzat beharrezko diren «epel» asko uxa litzake, ez du euskara erakargarri bihurtzen. Eta zein da gure paradoxa, orduan? Bada, euskararen etorkizuna ez dago oraindik batere bermatua; askok aurrera eta bizkor gainera doala irizten dioten arren, gure normalizazio prozesua neurri handi batean trabatuta dagoela ere esan liteke. Baina, hala ere, tentsioa jaitsita eta erlaxatuta gaudela sumatzen da askotan, euskararen garapenak eta biziberritzeak beharko lukeen energia ezin pilatuz eta aktibatuz. Eta energia hori, aktibazio hori, gustuko izan edo ez izan, larritasunetik

ere pizten da askotan. Larritasuna eta apokalipsia ez dira gauza bera, bidenabar esan dezagun. Erlaxatu diren indar horiek, beraz, neurri batean behintzat, larritasunak ernaraz litzake, euskalgintzaren bi eztanda sonatuenetan –XIX. eta XX. mende arteko pizkunde hura eta 1950eko erdialdetik aurrerako loraldia– gertatu zen moduan edo. Kezkak, galerak eta zapalkuntza sentsazioak, salatu beharrak... horiek ere energiak aktibatzen dituzte, eta, kexaz eta protestaz gainera, sormena, eragitea nahiz eraikuntza ere pizten dituzte.

Bada, mezu positiboak, alaiak, sortzaileak, agoniarik gabekoak, euskara gozatzearekin lotzen dutenak eta sinesgariak behar dira, ezinbestean, aurreratzen ari dena erakutsiko dutenak, euskarara erakargarritasunetik hainbat jende ekarriko dutenak. ETBn Kike Amonarrizek gidatuta ematen duten *Tribuaren berbak* saio bikaina izan liteke horren eredu. Eta horrekin batera, itzalak eta arriskuak garbi agertuko dizkiguten mezuak, errealitatea bere gordinean erakutsiko digutenak behar dira –izan, gordina ere bai baita–, alde batetik egoera erreala desitxura ez dezagun, eta bestetik erreala den larritasun horrek hainbat energia ere aktiba ditzan eta ez gaitetzen gehiegi erlaxa, ez baikaude loak hartzeko moduan.

## Sintesia

Diskurtsoan ere, horrenbestez, nolabaiteko sintesia beharko dugu, tankeraz eta doinuz elkarren artean oso desberdinak izan litezkeen mezuen artean. Gogoan izanda sintesia ez dela bataren erdia gehi bestearen erdia. Uneak, hartzaileak, gaiak eta bestelakoek aginduko dute noiz, zer eta nola esan behar den, menutik zer hautatu behar den. Ez nuke, behintzat, aldez aurretik eta dogma gisa bata edo bestea, diskurtso «positiboa» edo diskurtso «iluna» alegia, hobetsiko.

Eta, bidenabar esanda, sintesiak euskalgintzaren jardunean ohiko irizpidea izan beharko lukeela ere esanen nuke,

eta strategiaren abiapuntuko oinarri filosofikoa: sormena behar du euskararen normalizazioak, festa, sentimendua, askotariko motibazioak, emozioak... baina baita planak, dekretuak eta hizkuntza politika normatiboa ere. Dikotomiarako dugun joeratik harago, gustuko eta ez hain gustuko ditugun osagaiak sintetizatzen jakin beharko genuke, euskararen hobe beharrez, euskal hiztunen hobe beharrez azken batean. 🧠



Telepolis

Gorka Julio

## Europako lehen bizikleta sistema publiko %100 elektrikoa Donostian

dBizi bizikleta sistema publiko %100 elektrikoa jarri dute martxan Donostiako Udalak eta Bonopark-ek, kontzesio publikoa jaso duen enpresak. Aurretik, bizikleta arruntetan oinarritutako sistema bat erabiltzen zen Donostian; orain, aldiz, sistema osoa bizikleta elektrikoetan egongo da oinarrituta.

Bizikleta elektriko bat erabili ez duenarentzat beharbada kontzeptua bera arrotza izango da. Bada, bizikleta elektrikoa, duen motorrari esker, pedalkadak ematerakoan laguntza sistema bat duen bizikleta bat besterik ez da. Donostiako kasuan, sistemak hiru abiadura edo laguntza modu ditu zailtasunaren arabera egokitzeko. Ohiko kanbioak ere baditu, eta, bizikleta arrunt baten moduan erabili nahi izanez gero, itzal daiteke.

Proiektuan gehiago sakonduz, egun 12 estazio daude instalatuta, ehun bizikletarekin. Auzo altuetako bizikleta estazioak oraindik ez daude instalatuta, baina bai planifikatuta. Urteko 365 egunetan dabil, 06:30etik 23:00etara (udan 00:00ak arte).

Bizikleta bakoitza leku batean hartu eta sareko beste edozein puntutan uzteko aukera ematen da. Erabiltzeko behar den txartelak NFC teknologia baliatzen du, Mugi edo Lurraldebus txartelek erabiltzen duten bera. Nahi izanez gero, txartel horietako bat ere erabil daiteke, beste bat poltsikoan eraman behar ez dutenentzat.

Zerbitzuaren urteko abonua 40 eurokoa da, eta bost euroko seguru bat ordaindu beharra dago. Aurreneko 20 minu-

tuak doakoak dira, ondoren ordaindu behar dena igarotako denboraren arabera da. Horretarako, bizikleta bakoitzak 3G konexiodun txartel bat eta GPS gailu bat ditu. Orain arte ia 600 pertsona egin dira zerbitzu honen erabiltzaile.

Gurean ez bezala, beste leku batzuetan bizikleta publikoaren inplantazioa aspaldikoa da. Etorkizuneko garraio publikoaren eztabaidan, bizikletaren papera bera aztertzen ari dira gero eta gehiago. Alor horretan bide asko dago egiteko oraindik; Europako iparraldearekin konparatuz gero, gure bide gorri sareak handitu, indartu eta hobetu beharko dira horretarako.

Argi dago, beraz, bizikleta eta bizikleta elektrikoa garraio-bide moduan hartzen ari diren garrantzia. Gure hiriburu gehienetan –Bilbo, Gasteiz, Baiona...– badira jada bizikleta publikoko sistemak, elektrikoak ez badira ere, erabilpen eta zabalpen ezberdinekin. Urrunago, Lyon eta Bartzelona aspalditik dira arlo honetan erreferente.

Eztabaida horiek guztiek ingurunearekin, bizikidetzarekin, hiri eta garraio ereduarekin... harremana dute, baina teknologiarekin ere zerikusi zuzena dute. Batzuek, *Smart* aurrizkiaren bidez, inteligenteak diren gailu, egitura, sensorre-sare... berri horiek guztiak bildu nahi izan dituzte. Erronka, hemen, tresna horiek guztiak jendartearen interesekin nola lerratu izango da. Zentzu horretan, Donostiaren adibidea edukitzea oso interesgarria da, arazo zehatz bati erantzuna ematen diolako.

## Zergak gora eta behera

Internetek deszentralizaziorako aukera ematen badu ere, enpresa handi batzuen eskuetan dago berori. Ekonomikoki ere, Apple, Google, Amazon, Facebook, eBay, Microsoft eta Yahoo enpresak irabazi handienak dituzten enpresa teknologikoak dira. Irabazi horiengatik ordaindu beharreko zergak, aldiz, non eta zenbat ordaintzen dituzten, hor koxka.



Badakigu enpresa horiek guztiak transnazionalak direla; batzuek hainbat herritan egitura propioa dute, beste batzuetan filialak eta beste batzuetan beste batzuekin alianzak izaten dituzte. Europan dituzten estrategia ezberdinak aztertzen saiatuko gara. Denek beren irabazien arabera zergak ordaindu beharko lituzkete, baina, ingeniariak finantzarioari esker, askoz gutxiago ordaintzea lortzen dute gehienetan.

Bermuda Uharteak eta Luxenburgoko bezalako «paradisu fiskalak» aukeratzen dituzte batzuek horretarako. Beste batzuek, aldiz, Irlandaren ogasun lege «bereziez» baliatzen dira helburu bera lortzeko.

*Financial Times*-ek egindako artikulu batean (<http://on.ft.com/1khfcoW>), Erresuma Batuko 2012ko datuak erabiliz, argi ikusten zen zein puntutaraino zen larria egoera. Konpainia horien guztien fakturazioa kontuan hartuta, 54 milioi libera inguru bakarrik ordaindu behar izan zuten. Oso gutxi, izandako irabaziekin konparatuz gero.

Espanian, egoera oraindik okerragoa da. *El País*-ek egindako azterketa baten arabera ([http://economia.elpais.com/economia/2014/01/18/actualidad/1390071860\\_568641.html](http://economia.elpais.com/economia/2014/01/18/actualidad/1390071860_568641.html)), enpresa horiek 1,2 milioi euro bakarrik ordaindu behar izan zuten, nahiz eta herrialde horretan 577,8 milioi euroko negozioa egin.

Facebook eta Google enpresek ez dituzte publizitatearekin lotutako irabaziak Espainian ordaintzen. Filialen bidez Irlandara bideratzen dute negozioaren parte handi bat, eta diru gutxi mugitzen duten negozioengatik eta soldaten ordainketa bakarrik ordaintzen dute Espainian.

Yahook bere patrimonioan galerak bakarrik omen ditu (sic). Applek ere, nahiz eta inoizko salmenta hoberenak izan, galerak omen ditu; beraz, oso zerga gutxi ordaindu behar izan ditu.

Amazonek Luxenburgon ordaintzen ditu zergak, legislazio berezi horretaz baliatuz; eta eBayek 36.000 euro ordaindu behar izan zituen, atera kontuak. Microsoft omen

da horietatik zerga gehien ordaintzen dituenetarikoa, ogasunarekin arazo ugari izan baditu ere.

Enpresa handi horiek, handi izateagatik bakarrik, fiskalitatean tranpak egiteko estrategia izugarriak lantzen dituzte. Egiten duten gehiena, aldiz, «legala» izan ohi da, legeek hori posible egiten baitute askotan. Horrekin batera, inpultso politikoak ere, «lanpostuak eta aberastasuna» sortuko dituztelakoan, horien ezarpenerako erraztasun guztiak ematen dizkie.

Argi dago fiskalitate, legedi eta politika horiek ez direla egokiak bertako garapen ekonomikoa eta subiranotasuna lortzeko. Aberastasunaren parte adierazgarri bat behintzat sortzen den tokian gelditzea ere ez dute lortzen. Batez ere kolonialismoaren garaian hain ohikoa zen politika estraktiboaren oso antzeko jarrera erakusten dute. Inperialismo berri honetan, lehengai nagusia ezagutza bihurtu bada ere.

## Windows XPri agur

Windows XP 2001ean atera zen merkatura. Horren ondoren, Windows bertsio berri ugari egon dira, baina ez da apirilaren 8ra arte benetan amaitutzat jo. Data horretatik aurrera, Windows XPk ez du eguneraketa berririk izango, eta, beraz, bere segurtasuna kolokan egongo da.

Jakin edo ez, Windows XP leku askotan erabiltzen da oraindik. Etxe askotan oraindik Windows XP erabiltzen duten pertsonak baldin badaude, lan eremuetan are gehiago izan daitezke.

Horiek garrantzitsuak izanik ere, oraindik garrantzitsua goak dira Windows XP erabiltzen duten sistema kritikoak: informazio pantailak, kudeaketa sistemak, kutxazainak... Segurtasun maximoa beharko luketen sistema kritiko asko dago oraindik Windows XPren bertsio ezberdinen gainean eraikia.

Vista, Windows 7, Windows 8 bertsioek ez dute sistema eragile zahar honek lortu zuen arrakasta izan orain arte.

Horregatik, orain, Microsoftek kanpaina mediatiko bihurtu du XPrako euskarriaren amaiera. Era honetan, jende gehiago bideratu nahiko dute Windows bertsio berrira, 8.1 bertsiora.

Kanpaina horretan beldurraren diskurtsoa erabiltzea erabaki dute, soluzio bakarra 8.1 bertsiora pasatzea dela azpimarratuz. Bertsio horrek orain arteko arazo batzuk konpontzen omen ditu, eta, gainera, hainbeste jendek eskatzen zuen ohiko mahaigain aukera ere ematen du. Hori bai, eguneraketa ordainpekoa da.

Bertsio horrek baliabide gehiago dituzten ordenagailuak beharrezko egiten ditu; beraz, jendea ordenagailu berriak erostera ere behartuko dute bide batez. Hori da behintzat Microsoften gune eta prentsa komunikazio ofizialetan proposatzen duten soluzioa (<http://windows.microsoft.com/en-us/windows/end-support-help>). Migrazioa egiteko pausoak ere zehazten dituzte, baina ez dute programa guztien funtzionamendua ziurtatzen.

Enpresa pribatu batekiko morrontzaz eta horrek duen garrantziaz jabetzeko balio beharko luke honek guztiak. Urteetan sistema eragile honen gainean egindako aldaketak, inbertsioak, programazioak... pikutara joan daitezke, enpresak bere kasa hartutako erabakiaren ondorioz. Ezer ez da betiko, ados; baina erabakiak bakoitzaren beharren arabera hartzea litzateke egokiena, eta ez hartutako morrontzen ondorioa.

Eskaintzen den aukera, bide batez, aukera faltsua da, kanpoan beste aukera asko uzten baititu. Ordenagailua eguneratu nahi ez edo ezin duenarentzat, adibidez, badira ordenagailu zaharragoetan ere ondo funtzionatzen duten GNU/Linux sistema eragilearen banaketak. Sistema kritikoetarako, aldiz, beharbada orain da momentua egokiagoak, libreagoak eta kasu gehienetan hobeak diren sistemetara igarotzen hasteko.

Adibide asko daude munduan, baina beharbada Municheko Udalak egindakoa oso adierazgarria da. Udal ho-

rrek, Windows 7 eta Office 2010 migrazioa egin behar izan zuenean, GNU/Linuxera eta OpenOfficera igarotzea erabaki zuen 2013an. Lan eskerga egin behar izan bazuten ere, 11.000 lanpostu eta beste zenbait zerbitzu migratu zituzten. Horrekin, 6,8 milioi euro aurreztu zituzten lizentzietan soilik, eta aldatu behar izan ez zuten hardwarea berrerabiltzeagatik beste 4,7 milioi euro.

Euskadiko Software Libreko Enpresen elkarteak (ESLE, <http://esle.eu>) software librearen behatoki berriaren bidez adierazi du gero eta hedapen handiagoa duela software librearen, administrazio publikoa eta bereziki hezkuntza alorra nabarmenduz. Aldi berean, enpresa pribatuetan joera goranzkoa da, eta pertzepzio aldaketa bat gertatzen ari dela nabarmendu nahi izan dute, gero eta jende gehiagok jotzen baitu software librean oinarritutako soluzioetara.

Windowsen eguneraketa soil bat egin beharrean, behar bada iritsi da beste era bateko erabakiak mahai gainean jartzeko garaia. Urteetan egon diren dudek eta zurrumurruek ez dute zentzu gehiegirik, jada arlo guztietan aurki daitezkeen adibideak sendoak baitira. 